


FRANZISKO GOÑI S. I.

# LURDES-KO GERTAERAK



**AUSPOA LIBURUTEGIA**

JB-895

9717

# LURDES-KO GERTAERAK

Ama Birjiñaren agertzeak  
eta gañerako  
Lurdes-ko gertaera gogoangarriak

---

**COLECCION AUSPOA**

**Administración: Plaza de Santa María 2 - Tolosa**

**Dirección literaria: Rdo. P. Antonio Zavala S. J.**

**Colegio de San Ignacio - Ategorrieta - San Sebastián  
(Guipúzcoa - España)**

**Ordaindu bearrak:**

**Urte betekoa: 200 peseta.**

**Atzerrian: 275 peseta**

**Ongilleak: 350 »**

**Ale bakarra: 25 »**

FRANZISCO GOÑI S. I.

# LURDES-KO GERTAERAK

AMA BIRJIÑAREN AGERTZEAK

eta gañerako

LURDES-KO GERTAERA GOGOANGARRIAK

AUSPOA LIBURUTEGIA

DEPÓSITO LEGAL S. S. 730—1962  
N.º DE REGISTRO 3848—1962  
(Bear diran baimenekin)

---

IMPRESO EN LOS TALLERES TIPOGRÁFICOS «ICHAROPENA»  
ZARAUZ (GUIPUZCOA-ESPAÑA)

# ARKIBIDEA

	<u>Orrialdia</u>
AITA FRANZISKO GONI, S. J. ... ..	9
ITZ-AURREA ... ..	17
LURDES-KO GERTAERAK	
Sarrera ... ..	19
<b>LENBIZIKO IRAKURGAYA:</b>	
Aurreneko salla: Ama Birjiña agertu zen denboran, Lurdes zer zen eta bertako jendea nola bizi zen; Masabiell-ko arkaitza ... ..	21
Bigarren salla: Ama Birjiñaren lenbiziko agertzeak ... ..	26
Irugarren salla: Amabost-aldi sonatuko lenbiziko agertzeak; Bernardatxo Jakomet-en etxean ... ..	36
Laugarren salla: iturri santuaren sortzea: Ama Birjiñak Masabiell-en eliza bat egitea eskatzen du; lenbiziko milagroak ... ..	43
Bostgarren salla: beste milagro batzuek; amabost-aldiko azkeneko eguneko agertzea ... ..	55

Seigarren salla: beste milagro batzuek; gobier-  
nuko jaunen burutazioak; Bernardatxoren  
lenbiziko komunioa ... .. 69

#### BIGARREN IRAKURGAYA:

Aurreneko salla: Ama Birjiñaren azkeneko  
agertzea; Obispo Jaunak Lurdes-ko gerta-  
eren gañean lenbiziko ordenak ematen ditu. 77

Bigarren salla: gaixtoen alperrikako alegiñak,  
Lurdes-ko gauzak aztu-azitzeagatik... .. 86

Irugarren salla: Obispo Jaunak, jakintsuen iri-  
tzia adituta ondoan, Lurdes-ko gauzen ga-  
ñean zer esan zuen ... .. 92

Laugarren salla: Masabiell-ko obrak eta mu-  
dantzak; Peyrañale eta Bernardatxoren ga-  
ñean azkeneko aldiz itz bi ... .. 106

#### IRUGARREN IRAKURGAYA:

Aurreneko salla: Ama Birjiñaren koronazioa . 112

Bigarren salla: peregrinazioak ... .. 115

Irugarren salla: Lurdes-ko medikuen billera-  
ren gañean ... .. 120

Laugarren salla: Lurdes-ko milagroen gañean 123

Bostgarren salla: beste gañerako milagroen ga-  
ñean ... .. 129

Bukaera ... .. 137



## AITA FRANZISKO GOÑI S.I.

Aita Goñi Oyartzun-en jayo zan 1878-garren urteko Uztaillaren 29-an, Zuaznabar baserrian.

Ikasteko izugarrizko gogoia izan zuan beti. Erriko eskolara gutxi ibilli zan, bañan gabero bere gelan sartu oi azpitik bi edo iru oi atera, mai arlote bat prestatu, olioeko argi bat piztu ta estudiatzen asten zan. Orduak pasatzen zituan ola. Goizean ez omen zan iñoiz ere deskuidatzen olak oi azpira atzera ere izkutatzen.

Egunez, ordea, iñork ere etzion antzematen gabean lo gutxi eginda zegoanik. Edozein bezin bizkor aritzen zan lanetan.

Amak bazekien ori dana, baita ere gela be-rean lo egiten zuan anayak; ez ordea aitak.

San Markos-ko fuertea egiten ari zirala, aita ara joaten zan lanera. Au bukatu ta Erlaitz-ko fuertea egiten asi ziranean, ontara etortzen zan lanera, etxetik goizean goiz irtenda. Bañan goizero, irten baño len, ondo adierazten zituan egun artan egin bear ziran lanak.

Mutilla, eguerdian, laister-bidetik korrika joaten zan Errenterira, ango maixu bati, Biz-

carrondo jaunari, lezioak ematera. Ordu beteko, edo geyenean ordu t'erdiko eskola, besterik ez. Ori izan zuan bere burua argitzeko bidea, ikastetxerik batere ez.

Iñauteri egun batez, ordea, esan bezela korrika zijoala, erori ta arri batekin belauna iriki zuan. Orduan jakin zuan aitak ibillera ayen berri.

Ala, 1895-garren urtean, Loyolarako asmoa azaldu zion aitari. Aitak bayetz ba, eraman-go zuala.

Aita gerratean karlistetan ibillia zan ta ondo korrituak ta ikasiak zeuzkan Gipuzkoako mendi-bideak. Gaztetako mendi ta tokiak berriro ikusteagatik ere pozik prestatu zan.

Oñez joan ziran. Egunsentia baño len etxetik irten ta lendabizi Astigarraga, gero Andoain, Sorabilla, Aduna-ren ondotik pasa, Zizurkil, Asteasu-ren ondotik Iturrioz-ko bentarra, Etumeta, Landeta ta Loyola. Bederatzi orduko bidea.

Loyolako Aitaren batek esamiñatu zuan mutilla ta au gelditzeko pozik. "Ni igual geldituko naiz" esaten omen zuan.

Loyolako Aita arek esan zion, ordea, gogo ori ondo zegoala, bañan aurrena errira bueltatu ta etxeokoi ta ezagunai agur egin bear ziela.

Ta mutillak :

—Bide berdiña degu danak ere. Etortzea daukate ni etorri naizen bezela.

Ta onela, aita bakarrik bueltatu zan etxera.

Loyolan egon zan bitartean, etxeokoi-eta ikustera joaten zitzaizkan noizean bein. Auek

ere oñez. Goizeko lauetan-edo abiatu ta Loyola-ko Amenabar-enean bazkaldu. Zenbait aldiz joan-etorria egunean egin oi zuten, len esan degun bidetik.

Filosofia ikasi ta gero, Gijón-go ikastetxera bialdu zuten eskolak ematera. Gaur Auspoa-k argitaratzen duan liburu onek, "Lurdes-ko gertaerak", Gijón-en egiña izan bear du. Orregatik esango du liburuaren bukaeran Euskalerritik urruti bizi dala.

Liburua argitaratu zan urtean, 1908-an, Teologia ikasten ari zan Oña-n (Burgos). Aita Nemesio Otaño ere ikas-lagun zuan.

1911 urtean eman zuan lenengo meza.

Gero Alemanira bialdu zuten, gizarteko ikasketak (sociología) egiteko. An zenbait urte pasa zituan. Ez omen ziran oso denbora goxoak. Bere lagun bat, jesuita, putzura bota zuten beintzat.

Andik etorri ta Bilbon asi zan lanean, langilleekin ta nekazariekin. Makiña bat cooperativa ta sindikato jarri omen zuan. Bañan dendariak-eta begitan artu zuten Aita Goñiren lana.

Orduan, Wuhu-ko mixiorako jendea bear zala ta Aita Goñi-k bere burua eskeñi zuan. Bai bialdu ere. Berrogei bat urte zituan.

1918 urteko Abustuaren 7-an irten zan Bilbotik. Eskutitz batean esan zuanez, gero, trenan zijoala agurka aritu zitzaion euskal lurrrari ta euskal jendeari.

Miranda-n bere Txinarako lagunekin junta-tu zan. Sei ziran guztira.

Europako gerra oraindik bukatu gabe ze-

goan, ta Barcelona-n illabete t'erdí itxogin bear izan zuten. Ta andik Txinaraño etzuten atsegin askorik izan.

Aurrena, etzegoala Suez-tik barrena, joaterik, ta Afrika guztia inguratuaz joan bear izan zuten.

Valencia-ren parean denborala gogor bat izan zuten.

Gibraltar-en, zenbait "cañonero" ta "caza-submarinos" omen zebiltzan itxas-ate ura zaitzen. Ayetako bat alderatu ta zijoazten baporea, "Antonio Lopez", ordu erdia geldi-arazi zuan paperak aztertzeke.

Atlantiko-ra atera ta jo zuten Cádiz, Las Palmas, El Cabo, Buena Esperanza-ko itxas muturra igaro ta Durban (Natal). Gripea-edo zala, ta berrogei egunean (cuarentena) egon bear izan zuten kai ontan. An zeudela, Bilbo-ko bi bapore ikusi zituzten: "Eretza-mendi" ta "Artagan-mendi".

Noizbait bear ta allegatu ziran Shanghai-ra (1919-I-27), ta emendik Wuhu-ra. Bost illabete t'erdí bañon geyago egin zuten bidean.

Wuhu ori Yantsekiang edo Ibai Urdiña de-ritzayonaren bazterrean dago, ta mixioaren buru egiten zuan. Ibai ori munduko irugarrena omen dan luzeeraz, ta aren ingurua, ezker ta eskubi, zelai ta ordeka omen da, batere malदारिक gabe. Bañan ego-aldera mendiak asten dira. Zenbat eta ibayetik urrutiago, ainbat eta mendi geyago.

Mixiolariak emen bat eta an bestea bizi izaten ziran, alkarrengandik sakabanatuta. Bakoitzak bazituan bere elizatxo, eskola, zenbait

dotriña erakusle ta lanetan laguntzeko zenbait moja; ta antxen, sayatu zedilla bakoitza, al zuan moduan, fedeko egiak izkera berri gaitz batez zabaltzen.

Aita Goñi-k urtebete egingo zuan izkera ikasten, ta lendabizi Niangkiakiao-ra bialdu zuten, ta gero Yingkiawei-ra. Mixiolari trebea ta sutsua izan omen zan.

Zegoan erritik eun bat kilometrora Monse-rrat antzeko mendi-mordo agiri zan "Chiu-jus-shan" izena omen zuan, alegia "Bedera-tzi loreetako mendia" ango izkeraz, ta toki santutzat omen zeukaten angotarrak.

Aita Goñi-ri ta beste bi mixiolariri an zer ote zegoan ikusteko gogoa egin zitzayen, ta ekin zioten egun batean bideari.

Ikusgarriak omen ziran mendi ayek: ar-kaitz ikaragarri aundiak zut-zutik, erreka gar-biak, baso illunak, bista ederrak,... Ango bi-deak millaka ar-mallaz eginda zeuden, eta pe-legrinazioan etorritako erromesak gora ta be-ra zebiltzan bide guziak betean.

Pagoda batera iritxi ta "Lenengo zeruko atea" jartzen omen zuan izena; bigarrengora iritxi ta "Bigarrengo zeruko atea", ta andik aurrera irugarrena, laugarrena,... pagoda gu-zietan. Pagoda batzuek amiltegi izugarrien ertz-ertzean zeuden. Ta pagoda askoren ondo-ren, alegia "zeruko ate" askoren ondoren, ba omen zegoan beste bat tontor-tontorrean, "Tientan", alegia "zerua", jartzen zuana.

Praille budatarren etxe asko omen zegoan. Iñork etzien galerazten ta pagoda ta praille-etxe guzietan sartu-atera ibilli ziran dana iku-

siaz. Ba omen zeuden barrunbe ayetan Buda-ren irudi lodi tzar asko, aldare antzekoak, in-tzentsua-ta erretzeko su-ontziak... Zenbaitetan oso ondo artu zituzten praille budatarrak; bestetan prailleak beren errezo ta elizkizune-tan ari ziran, eta toki guzietan arritu egiten ziran danak, atzerritar batzuk an ikustez. Iru bat egun egin zuten mendi ayetan. Zer ikusi ez ezik, zer pentsatu ere izango zuten mixiolariok.

Bañan baziran mendi santuak etziranak ere. Beste ayetan lapurrak beren kabi ta gorde-le-kua zuten. Izan ere, gerra ta naspilla asko zebillen urte ayetan Txinan.

1926-garren urtea, Yingkiawei-en zegoan Aita Goñi. Egun batean lapurrak mendietatik jetxi ta 70.000 piastra (ango dirua) eskatu ziz-katen. Etzituala esaten zien, bañan kasorik ere ez ayek. Atzerritarra izanik, urrez puztu-takoren bat zala usteko zuten.

Makillazoka ta jipoika erabilli zuten, dirua nun zegoan aitor-arazi nayeian. Bein baño ge-yagotan fusilatzeko puntuan jarri zuten. Az-kenean arbol bati lotuta utzi ta joan ziran.

Bostgarren egunean, andik igaro ziran atze-ra ere lapur oyek, beren mendietan izkuta-tzera zijoazela. An omen zegoan oraindik ere Aita Goñi arbolari lotuta.

Lapur batek esan zuan:

—Ilko al degu?

Ta Aita Goñi-k:

—Obe litzake azkatu ta lagatzea.

Aia, azkatu zuten. Arroz pixka bat ere eman zioten. Aita Goñik jateko itxura egin zuan ta joan ziranean arrastaka ta al zuan bezela etorri zan jende-artera. Wuhu-ra ekarri zuten bereala.

Orren ondorea, gaitz zital bat sortu zitzaion: anakak-eta lendabizi aunditu ta gero zauritu egin zitzaizkion. Nunbait ilda zeuden ango aragiak. Ez ordea emen zauri bat ta an bestea, zauri bat bakarrik baizik, bañan bat orrek goitik bera dana artzen ziona, aragi guziak ustelduaz. Egunero garbitu ta alegin guziak eginda ere, zauria beti goraka.

Gerritik gora etzuan ezer, eta orrek iraun-arazi zion bizirik. Ezertarako gauza etzala gelditu zan: oyetik gurpilla-dun exer-toki batera, ontan egualdi ona bazan baratzara aize pixka bat ar zezan, ta ezer-tokitik oyera. Meza ere, Erromara baimena eskatu ta exerita ematen zuan. Bestela ezin.

Ala ere etzan kejarik txikiena ere aren aotik sortzen, ta beti umore onez zegoan. Bai gorputzeko gaitzez eta bai animaren patzientziaz, Job santuaren irudi ber-bera izandu zan.

Manila-ra ere aldatu zuten. "Blas de Lezo" zeritzayon ontzian eraman zuten. Bañan ango egualdi-giroak etzion onik egin, ta joan zan okerrago etorri zan andik.

Eskeñi zioten Espafiara etortzea, bañan ala esan omen zuan:

—Ez, ez, nere ezur zar auek Txinan utzi bear ditut nik.

Ta ala utzi zituan, 1929-garren urteko Gargarrillaren 20-an Wuhu-n il bait-zan.

Mixiolari-lanetan sei urte egin zituan, eta bere gurutz-bide ontan iru. (1)

---

(1) IKUSI: «La Misión de Wuhu (Anhwei-China).—Su historia y sus obras. Wuhu Bilbao, 1940».

Francisco Goñi, S. I.: «Quinta expedición de misioneros jesuitas españoles al Anhwei, a través del Cabo de Buena Esperanza». El Siglo de las Misiones, 1919.

Francisco Goñi, S. I.: «En el corazón del Budismo chino. Excursión a la «montaña de las nueve flores». El Siglo de las Misiones, 1922.

Aita Goñi ezagutu zutenak, batez ere bere anayak, emandako berriak.



## ITZ-AURREA

Aita Goñi-ren liburu au "Durango-n - Florentino Elosu-ren etxean -1908-garren urtian" argitaratu zan. Garai artan teología ikasten ariko zan. Euskeraz etzuen besterik antolatatu zoritxarrez.

Bere txikitán ikasitako euskera ematen digu. Orregatik badira emen izketa-modu batzuek Oyartzun-dik kanpoko Gipuzkoarrai berrri xamarrak eta ez-ezagunak idurituko zaizkionak: biño, euskara, zen, dut, dugu, ta abar. Bañan laister asko oituko da irakurlea. Bat kendu degu: batzutan itxe ta besteetan etxe zegoen; etxe jarri degu danetan. "Fonetismoak" ere kendu ditugu.

Munduko izkera guziak badute bakoitzak bere Lurdes-ko Amaren kondaira, eta bat baño geyago askok. Euskaldunak ere badegu bat, Aita Goñirena.

Ontaz gañera badegu itzulpen bat: "Jean Barbier: Ama Birjiña Lurden (Les Merveilles de Massabielle) / Pruvost aphezaren Frantses liburu batetarik egina. / Bayonne 1920". Beraz, au etzan euskeraz jayo.

Aita Goñiren liburuak bi izen ditu: bata, kanpoko azalekoa: "Lourdes-ko gertaerak"; bestea, luzea, barrengo lendabiziko orrian azaltzen dana: "Ama Birjiñaren agertzeak eta gañerako Lurdes-go gertaera gogoangarriak".

Aita Goñi-k etzuen "literatura" egin nai izan; euskal animai "Lurdes-ko gertaerak" zer ziran adierazi nai izan zien. Ortarako al zuen bezin errex ta garbi moldatu zuen bere kontaera. Esate baterako, Oyartzun-go mendietako iturriak bezin garbi ta eder. Eta orrela, ortik sortu zan liburua, euskal animen probetxugarri ez ezik, euskal literaturaren apaingarri gertatu zitzaigun.

## SARRERA

*Ara emen, euskaldunak, inñolaz ere asko gustatuko zaizuten kondaira edo istori bat. Zue-tatik asko joaten zerate Lurdes-ara, eta ez daki-zute Lurdes-ko gertaeren gañean, an aditzen duzutena besterik; bada, gertaera oriek seguru jakin ditzazuten eskribitzen dut istoria au.*

*Galdetuko duzute agian, ia zergatik atzerri-koen istoria eskribitzen dudan, Euskal-errikoak utzita; bada, bi arrazoigatik egin dut: Ama Birjiña Lurdes-koa gure denboretan oso sonatua delako, eta Berari (uste dudanez) asko zor diodalako. Ez dut bada nik, etxeko gauzetaz az-tuta, auzokoetara joatea nai, ez; biño, ez dago gaizki etxeko gauzetaz aztu gabe, beste lekue-tan zer gertatzen den ere jakitea.*

*Jenderik geyena Irun eta Oyartzun aldetik Lurdes-ara joaten delako, ayek ayetako euska-*

ran eskribitu dut liburu au; biño, edozein alde-  
tako euskarán ere erraz entenditu liteke.

Ez izutu eskriturakin ere; euskaraz eskribi-  
tzeko legerik oraindik ez dugu, eta orrengatik  
bakoitzak bere modura eskribitzen du; biño,  
nik uste dudanez, au da modurik zuzenena eta  
arrazoizkoena. Pixka bat irakurri orduko, oitu-  
ko zera; ¡aurrera bada!

## LENENGO IRAKURGAYAREN AURRENEKO SALLA

*Ama Birjiña agertu zen denboran Lurdes zer  
zen, eta bertako jendea nola bizi zen;  
Masabiell-ko arkaitza.*

Lurdes-ko iri edo ziudadea (frantzesez Lourdes) arkitzen da Altos Pirineos deritzayon Departamentuan, Labedan-ko zazpi ibarren sarrean, Tarbes-ko zabalduya itxitzen duten mendietan. Bada an arroka aundi bat, mendietatik baztertua, gaztelu batekin, eta etxe-mordoxka naspillatu bat oñean. Arrokaen bazterra barrena erreka bat dijoa, Gabe deritzayona, zumar, lizar eta makalen artean iru edo lau errotai ura emanaz; iria, gaztelua eta iru errota eskuira utziaz, azkenean Adurrekin batuta, Bayonan Kantabriako itxasoan sartzen da.

Au onela zen orain berrogei ta bi urte, milla zortzireun da berrogei ta emezortzian; orduan Lurdes-en lau milla ta irureun lagun bizi ziran; orain zazpi milla biño geyago badira. Baiditu lur onak ereintzeko, baita belar-soro galantak ere. Gaztelua Jesukristo biño lenago Cayo Cesar zeritzayon erromatar batek egin zuen, eta beti sonatua izandu da bere inguru ederretan.

Uda-aldian leku askotako jendeak eta batez ere aundizko asko izaten da iri artan, bañu-etxe sonatu asko inguruan dituelako. Bertako jendea azkarra, biotz eta osasun onekoa da, eta ez dira ez-jakiñak Elizako gauzetan ere. Gañera naiz nexkak eta naiz mutillak eskolan ongi ikasten dute. Jende guzien Ama Birjiñarenaganako debozioa aundia da, eta Lurdes-ko elizak dituen aldare guziak Jaungoikoaren Amari konsagratuak daude. Orra Lurdes zer zen, eta bertako jendea nola bizi zen Ama Birjiña agertu zen denboran.

Etorri zen milla zortzireun da berrogei ta emezortzigarren urtean Ostegun-gizen eguna, Otsaillaren amaikan. Otz zegon, zerua pixka bat lañotua; biño eudirik etzuen egiten, eta aizerik ere etzebillen. Amaikak jo zuten; eta leku askotan, oi den bezela, bazkari ederrak jartzen ari baziran ere, bazen Lurdes-ko kalean

famili bat oraindik janaria maniatzeko egurrik ere etzuen.

Aita, oraindik gazte samarra, lenbizi errota-ria izandu bazen ere, nola ezpaizijoakion ongi, auzoetan lana eginta irabazi zuen; Franzisko Subiru (Soubirous) zeritzayon, eta Luisa Kasterot aren emazteari. Bi seme eta bi alaba zituzten; zarrena, alaba, iya amalau urtekoa. Onek etzeramazkien bere gurasoakin amabost egun baizik, eta ara zergatik. Mundu ontara etorri zenean, aren ama etzebillen ongi, eta inñude bat billatu bear izandu zuten. Au arkitu zuten Bartres deritzayon aldeko erri batean, eta Bernardatxo an bizitu zen, lenbizi illabete batzuetan eta geroago bi urtean. Azken aldian, artzaintzan jardun zuen mendietan.

Beti motel samarra, noizean bein asma pixka batek estutzen zuen. Ez bere kulpaz, baizik guraso ordekoak kontuzkoak etzirialako, animako gauzetan atzera samar zebillen; eta au jakinik, lenbiziko komunioa egin zezan, gurasoak etxeratu zuten.

Orra itz gutxitan istori onetan bigarren lekua izan bear duena, Bernardotxo; orra nori agertu zitzayon orrenbeste aldiz, laixter ikusiko dugun bezela, Zeruetako Erregiña eta Jaungoikoaren Ama. Ez naz geldituko esan gabe, Ama Birjiña esan al ezin litezkien bere ager-

taldia guzietan, jende beartsuai eta batez ere artzayai agertu zayela; gogoratu zazute, euskaldunak, emen bertan Arantzazun eta beste leku geyagotan gertatu dena.

Esaten asi nintzan bezela bada, Ostegun-gizen egunean goizeko amaiketan, Subirusen etxean bazkaria jartzeko egurrik ere oraindik etzen. Agindu zion Luisak bere bigarren alaba Mariari, zotz batzuek erreka bazterrean bildu zitzala; jantzi zituen bere egurrezko oñetakoak; biño ura etxetik atera biño len, esan zion Bernardatxok amari, ark ere Maria-kin joan nai zuela; Luisak, lenbizi nai ezpazuen ere ongi etzebillelako, azkenean atsegin emateagatik utzi zion. Juntatu zitzayen Juana izena zuen auzoko beste nexka bat ere, eta abiatu ziran, Jaungoikoak ayek usterik gutxiena zuten lekura eramaten zituela.

Esan nuen bezela, iria ta Gaztelua Gaberen eskoyean daude; bada errekan, goitik bera gatzozela, zubi aspaldiko bat jendea erritik beste aldera irago deiyen, eta zubi ondoan lengo denboretan arresi aundi bat, andik kilometro batera zegon errota baten presarentzat; erreka eta presaren artean gelditzen zen lur edo ugarteari Txalet zeritzayon. Presaren ezkerrean errota igarota laixter, arkitzen zen milla zortzireun da berrogei ta emezortzigarren urtean, arroka



zakar bat, iru zulo aundi bat bestearen gañean zituela; lenbizikoa eta aundiena lurrean zegon, etxe baten ate bat bezela; eta gero biño gero estuagoa zen; beste biak txikiagoak onen gañean zeuden.

Erdikoak, leyo edo aldareak santuak jartzeko izaten dituzten alako zokon bat zirudien, eta barrendik iruak komunikatzen ziran, goitik bera zegon zulo batetik tximeniaren antzera; erdiko zuloaren ondoan, sasi-arros bat zegon arri tarteetan, bere adarrak zuloaren lurraren gañean zabalduaz; eta au guzia, esan bezela, arkitzen zen presa bazterrean, presaren eta errekaaren artean zegon belar-soro ura aurrean zuela. Arroka onen izena Masabiell (Masabielle) zen, eta guzia untzez eta sasi-arrosez jantzia zegon.

## LENENGO IRAKURGAYAREN BIGARREN SALLA

### *Ama Birjiñaren lenbiziko agertzeak*

Esan dedan errekaeren gañean zegon zubi ura iragota, sartu ziran iru nexkak presaren eta errekaeren artean zegon belar-soro artan; joan ziran be aldera, eta ikusi zuten presaren ezkerreko aldean, Masabiell-ko arkaitzaren bazterrean zotz-leku eder bat; eta nola egun artan presak ur gutxi baitzuen, errota konpontzen ari ziralako, Juana ta Maria oñetakoak erantzita irago ziran beste aldera, eta magalak egurrez betetzen asi're bai. Bernardatxo besteak biño atzeraxeago zetorren; presa-bazterrera etorri zenean, pixka bat ur otzak ikaratu zuen; biño, alaz guziaz ere, arri baten gañean eserita oñetakoak erantzitzen ari zen.

Eguardiko amabiak ziran, aizerik etzebillen eta goibel zegon. Ontan Bernardatxok aditu zuen bere inguruan soñu aundi bat, aize bolara baten antzekoa; begiratu zien arbol-adarrak, eta geldi zeuden. ¿Zer ote zen soñu ori? esan zuen bere artean; eta pixka bat izutua, berriz ere oñetakoak erazten asi zen. Berriro beste soñu aundi bat aditzen du; burua jasotzen du; Masabiell-ko arkaitzari begiratzen dio; dardar gorputz guziak egiten dio; eta dena ikaratua, lurrean belauniko gelditzen da; ordu artan bertan Zeruko Erregiña eta Jaungoikoaren Ama, Maria jatorrizko pekatuaren kutsurik gabe sortua, bere begien aurrean ekusten zuen. ¿Zorioneko begiak!

Masabiell-ko arkaitzean, Erdiko zulo artan zegon Ama Birjiña, zutik, dena argitasun eder batez inguratua, Bernardatxori begira. Etzen oso altua, ez eta txikia're; ogei bat urte zituela zirudien. Arpegia, alaya eta leguna; burua zuzen; edertasuna paregabea; etzuen ezer esaten, eta geldi zegon. Jantzia, txuri txuria, zeruko euleak egiña; gerrian zeru koloreko zinta eder bat, bi muturrak zintzilik zituela; oñutsik, eta oin bakoitzean urre koloreko arrosa eder bat oñaren gañean. Eskuak, errosario batekin, bularren aurrean juntatuak zeuzkien; errosarioa txuria zen, urre koloreko katearekin, eta erre-

zatzen bazuen bezela aleak iragotzen zituen beatzetan. Au guzia ezer ezta aren edertasunaren gañean, bada ezer ez gara mundutarrak zeruko edertasuna agertzeko; gauza bat naidut emen emakumeak ikasi dezaten: Ama Birjiñak, ederra izateko, erraztun, usai, auts eta seda bearrik ez duela.

Bernardatxok ere bere errosarioa atera zuen, eta ziñatzen asi zen, biño etzuen eskua jasotzeko indarririk; ikarak etzion uzten. Orduan Ama Birjiña bera ziñatu zen, Bernardatxori indarra emateko bezela; onek ere eskua jaso zuen, ziñatu zen eta esan zuen bere Errosario Santua; azkeneko gloria bukatu zuenean, Ama Birjiña're ezkutatu zen, lenago utzi zuen lekura, Trinitade txit Santaren aurrera joateko. Orra nola gertatu zen Ama Birjiña Lurdes-koaren lenbiziko agertzea, milla zortzireun da berrogei ta emezortziko Otsaillaren amaikan.

Bernardatxok alde batera eta bestera begiratu zuen, biño etzuen ezer ikusi. "Zein ote zen orren emakume eder ori?" esan zuen bere artean, bada etzekien Ama Birjiña zela. Pixka bat onela egonduta gero, oñetakoak erantzirik beste aldera iragotzen da; Juana ta Maria, sortegurra eginta, arkaitzaren zulorik aundien artan jostatzen zebiltzan.

—¿Zuek ezer ikusi duzute? —esaten die Bernardatxok.

—Guk ezer ez; zu belauniko egondu zerala, errosarioa errezatzen —erantzun zuten Juanak eta Mariak—; zuk zerbait ikusi al duzu?

Bernardatxok:

—Nik bai, zerbait ikusi dut, biño ez dut esan nai.

Ontan sort-egurrak egin zituzten; eta etxera abiatu ziran.

Juanak eta Mariak ezagutu zuten Bernardatxo pixkat bat izutua bezela zegola, eta zerbait gertatu zitzayola; eta ezin ixilik egon ziran zer ikusi zuen beti Bernardatxori galdeka. Onek azkenean dena zen bezela esan zuen; Juana ta Maria arritu ziran, bada ayek etzuten ezer ikusi. Badijoaz etxera; amari dena esaten diote; eta onek, agian infernuko etsaya izango zela emakume-itxura artan bere artean esanaz, Bernardatxori agindu zion geyago alde artara etzedilla jon, okerren bat gertatu etzeiyen.

Au izandu zen Bernardatxorentzat gauzarik gogorrena, bada emakume arren itxura etzitzaion burutik joaten eta berriz ere ikusteko gogo aundia gelditu zitzayon. Igandea etorri zen, eta Bernardatxo ta bere lagunak Luisagana di-

joazte, bazkalondoan arkaitzera joateko baimena eskatzera; Luisak etzuen nai, biño azkenean uzten die. Iru nexkak artu zuten botilla bat ur bedeinkatua eramateko, bada emakume ura deabrua izan zitezkie. Elizara jon, pixka bat errezatu ta arkaitzerako bidean ur bedeinkatua-kin jartzen dira.

Lekuan ziradenean, Bernardatxoren aginduz errosarioa esaten ari ziran ixilik; berealaxe Bernardatxoren arpegia argitzen da, begiak zabal-tzen ditu asko, eta esaten die lagunai:

—Ara non dagon, ara non dagon; begira zayozute.

Biño lagunak etzuten ezer ikusten. Oetatik batek ur bedeinkatua eskuetan jarri zion, eta Bernardatxok, ura boteaz, esan zion Ama Birjiñari:

—Jaungoikoaren izenean baldin badator, alderatu bedi.

Ama Birjiñak, Jaungoikoaren izen santua entzun bezin laixter, burua pixka bat makurtu zuen, eta arrokaren ertzeraño atera zen, par pixka bat ezpañetan zabalduaz. ¡Ai, zer gauza miragarriak! ¡Jaungoikoaren Ama, zerutik lurrera etorrira, nexka baten esana egiten! ¡Ai

zein ona den Ama Birjiña eta zeñen biotz ona duen!

• Gero Bernardatxo itzik gabe gelditu zen; Ama Birjiñari begira begiak bein ere itxi gabe zegon; etzen batere mugitzen, eta arri biurtua zegola zirudien. Izutzen dira Bernardatxoren lagunak ura era onetan ikusita, eta laixterka aldameneko errota artara dijoaz abisatzera; badator errotaria; alderatzen zayo Bernardatxori, eta bera're arritu gelditzen da; sekulan ez omen zuen alako arpegirik ikusi, zeruan zegola omen zirudien Bernardatxok. Pixka bat itxegin zuen; beste geyago're etorri ziran, biño Bernardatxok era berean ziarduen. Azkenean errotariak beso batetik elduta lurretik altxa bear izandu zuen, biño zutik etzen egoten, eta besoetan bezela errotaraño eramán zuten.

Errotan, pixka bat bereganatu zenean su ondoan, esan zion norbaitek ere "ia zertako zebillen txorakeri ayetan", eta Bernardatxok erantzun zuen "etzirala txorakeriak, emakume guztiz eder bat ikusten zuela, argiz dena inguraturua". Egun artatik gertaera oon berria zabaldu zen bazter guzietan, guzien izketako gaya egiñaz.

Bernardatxoren gurasoak etzuten aurren al-dian ezer sinisten; biño nola nexkak egia zela

baitzion, eta batez ere nola gauzak beti era berean kontatzen baitzituen, azkenean zerbait gertatu zela sinistu zuten. Biño, zerbait gertatu zela sinistuta're ¿zein zen emakume ura? ¿beste mundukoren bat? ¿purgatorioko animen bat laguntza eske? Askok ala igerri zioten, eta batez ere emakume bik; joan ziran ok Bernardatxoren etxera, eta esan zioten oni "galdetu zezayola nor zen eta zer nai zuen".

Urrengo goizean, otsaillaren emezortzian, joan zen Bernardatxo emakume ookin biekin arrovara, bort eta erdietako meza entzunta ondoan. Nola lenago esantako errota ura ordurako konpondu baitzuten, ezin zitekien presaren beste aldera irago, ur asko zeramalako; eta ala Masabiell-ko arkaitzaren atzetik joan eta goitik bera iya lau-oinka jetxi bear izandu zuten Ama Birjiña agertzen zen lekura.

Bernardatxo, naiz miñabar ibilli, bere barrenean sentitzen zuen indar berri batek egaka bezela eraman zuen, eta lagunak ondotik al zutenen ura biño geroxeago allegatu ziran. Bernardatxok zulora begiratzen du; ez du ezer ikusten; belauniko errosarioa errezatzen astenda, eta laixter bere izenez arrokaen zuletik deitzen diote. ¿Zer ote da? Argitasun aundi bat lenbiziko aldietan bezela agertzen da arkaitzaren zuloan, eta gero aren erdian zeruetako



Erregiña, Bernardatxori begira, eta geyago alderatu zeiyen eskuakin keñuka.

Bernardatxoren lagunak onen arpegitik igerri zioten zerbait ikusten zuela, biño ayek etzuten ezer ikusi; Bernardatxok esaten die :

—Ona non dagon, alderatu neiyela esaten dit.

Eta lagunak :

—Galdetu zayozu ia gu egon giñezken emen.

Bernardatxok begiratzen dio Birjiñari; eta gero :

—Bai, egon ziñezteke —dio.

Bi emakumeak belaunikatzen dira, eta kanela bedeinkatu bat pixtutzen dute.

Bernardatxo, begiak zabal zabalik, Ama Birjiñari begira zegon, zer agindu zitzayon aztua bezela; biño lagunak laizter esan zioten :

—Galdetu zayozu nor den eta zer nai duen; guk egingo dugula nai duen guzia; ia mezak esatea nai duen; eta obekiago jakin dezagun zer nai duen, ara emen tinta, papera ta pluma; esayozu eskribitu dezala.

Bernardatxo ok eskuan arturik alderatzen da, Ama Birjiña berriz atzera dijoa; sartzen da

Bernardatxo arrokaren beko zuloan, eta barren-  
dik Maria alde aldean ikusten du; orduan al-  
deratu ziran lagunak ere, biño berealaxe atze-  
ratu ziran Bernardatxoren esanaz. Gero an oin-  
-muturretan jartzen da eta eskaintzen dizka  
Ama Birjiñari papera, tinta ta pluma, esanaz  
zerbait nai badu eskribitu dezala; onek par  
eginiñaz erantzuten dio:

—Ez da nik nai dudana eskribitu bearrik;  
bakarrik nai dut zu amabost-aldi batean egu-  
nero etortzea.

—Ni zuzen etorriko naiz —erantzun zion  
Bernardatxok; eta Birjiñak orduan esan zion:

—Nik berriz zorionekoa egingo zaitut, ez  
mundu onetan, biño bai bestean.

Atzeratu zen orduan Bernardatxo bere la-  
gunetara, eta ekusi zuen Ama Birjiñak lagune-  
tatik bati atsegiñaz begiratzen ziola; onek An-  
tonia zuen izena, eta Ama Birjiñaren alabeta-  
ko billerakoa zen.

—Galdetu zayozu emakume orri ia naiko  
duen gu ere zurekin onara etortzea —esan zu-  
ten lagunak.

Alderatu zen Bernardatxo Ama Birjiñaren-  
gana, eta onek erantzun zion:

—Etorri litezke oyek eta beste edozein ere bai; emen jende asko ekusteko gogoia daukat.

¡O zeñen itz gozoak! ¡Ama Birjiña bere aurrean jende asko ekusteko zaletua! Bai egiaz: zergatik Jesukristok orrenbeste maite bagaitu, aren Amak ¿nola ez gaitu maiteko?; eta Jesukristok on egiten badigu, ¿nola Ama Birjiñak aztuko gaitu?

Azkeneko itzak bukatuta bereala Ama Birjiña ezkutatu zen, eta Bernardatxo eta bere lagunak etxeratu ziran.

## LENENGO IRAKURGAYAREN IRUGARREN SALLA

*Amabost-aldi sonatuko lenbiziko agertzeak;  
Bernardatxo Jakomet-en etxean.*

Bernardatxoren lagunak, errira biurtu zira-denean, esan zioten arkitzen zituzten guziaz zer gertatzen zen; eta nola egun ura feri-eguna baitzen, berri ok zabaldu ziran alde guzietara.

Urrengo goizean Bernardatxo arkaitzara joan zenean, eun lagun beenika bazauden aren zai; bigarren goizean, lareun edo bosteun; igandean, asko milla. Etzuten ezer ekusten, nexka bat orazioan espada; eta alaz guziaz ere guziaz sinisten zuten norbait beste mundutik etorri ta leku artan agertzen zela, eta azkenean igerri zioten nor agertzen zen ere: “Ama Birjiña da” zioten guziaz. Biño etzuten guziaz

au bera esaten: baziran Lurdes-en gizon batzuek, liberalak eta Lurdes-ko gazeta liberala irakurtzen zutenak. ¿Zer esaten, zuten ok? Gazetak ziona. Eta ¿zer zion gazetak? Sortu al zezakien guzia, naiko gezurrak nastuaz, Elizaren, Jaungoikoaren eta animaren gañeko gauzen gañean parra lasai egiñaz, Bernardatxo burutik nastua zegola, Bernardatxoren gurasoak sorkeri onekin txanponen batzuek irabaztea pensatu zutela, eliz-gizonen batzuek dirua ateratzeko modu berriren bat sortu zutela, egun batean gauza bat eta bestean bestea; arraya beti urera joaten baita bada, eta auntza berriz larrera: ezin zezatekien besterik egin liberalak.

Gutziz urruti zeuden eliz-gizonak dirua ateratzeko modu berri au sortzetik. Lurdes-ko denbora artako parroquia Peyramale zeritzayon apaiz bat zen; gizon zuzena, bere bearra zuzen egiten zuena, jakintsua, oso biotz onekoa, Jaungoikoaren serbitzari leiala, beartsua zuen guzia etzutenai ematen zielako; denak maite zuten, eta gaixtoak berak ere errespetua zioten.

Jakindu zuen onek zer gertatzen zen Masabiell-ko arkaitzean; biño etzen, norbaitek us-teko luken bezela, bereala Bernardatxoren alde atera, an gertatzen zen dena egia dela esanaz, zergatik bazekien onlako gauzak kontuz juz-

gatu bear dirala. Onelako gauzak egiak izan litezke, baita gezurrak ere; gañera, Jaungoikoaren aldekoak edo deabruarenekoak. Esan balu bada Peyramalek bereala, Bernardatxok egia esaten zuela edo gezurra esaten zuela, gauz ayek Jaungoikoak egiten zituela edo deabruak egiten zituela, eta gero ark esaten bezela etzela gertatu bazen, ¿zer esango zuen jendeak? ¿zer batez ere gaixtoak, Lurdes-ko liberalak?

Peyramalek bada au guzia ekusi zuen; eta bere mendeko apaiz guziak bilduta, au gutxi gora bera esan zien :

—Jakingo duzute onezkero Masabiell-ko arkaitzean zerbait gertatzen dela; biño Elizarentzat lotsagarrikeriín bat gero gertatu ez deiyen, gu oraindik ixilik gauden; ez dedilla gutako bat ere arkaitz ortara joan, eta esaten diguten guzia ez-aditu egin dezagun; gauzak garbiago agertzen diranean mintzatuko gera.

Ala egin zuten apaiz guziak, eta ederki alere; eta Peyramalek egin zuena, aren obispo jaunak ontzat eman zuen, parrokuak bere apaizakin egin zuena obispoak ere bereakin egiñaz.

Onela eliz-gizonak ziardutela, etorri zen garizumako lenbiziko igandea, amabost-aldi sonatuko irugarren eguna. Esan dugun bezela, eguzkia atera biño lenago asko milla persona

an zeuden Bernardatxoren zai arkaitzaren aurrean. Irago zen au jende artean, guziak ixilik begiratzen ziotela, arrokeririk gabe, biño ez eta ere ikaratua, eta jarri zen belauniko ar-zuloaren aurrean. Andik laixter arpegia argiz inguratzen zayo; aba pixka bat zabaltzen du; begiak leku batean zorrotz jartzen ditu; etzrudien munduan bizi zela, baizik zeru aldean, eta guziak ezagutu zuten zer gertatzen zen.

Gero altxatuta, arrokaren beko zuloan sarturik belaunikatzen da. ¿Zer gertatzen zen? Ama Birjiña atzeratu zela, eta Bernardatxok barren-dik ezpada ekusi ezin zezakeala. Ama Birjiñak begiratu omen zuen orduan kanpora, eta andik mundu guziko gizon eta emakume guzien pekatuak ekusi bazituen bezela, dena naigabez betea gelditu omen zen.

Itxura artan ekusita Bernardatxok esan zion Ama Birjiñari:

—¿Zer du? ¿Zer nai du egitea?

Eta erantzun zion Birjiñak:

—Nik nai nukeana da, asko errezatzea pekatariengatik.

Ezaguturik Bernardatxok itz abetatik Maria naigabez betea zegola, negar malko bi ixuri zituen, geroxeago berriz pixka bat alaiturik, ba-

da Birjiña're alaitu zen Jaungoikoaren errukitasuna ekusita. Onetan Ama Birjiña ezkutatu zen, onen erakuskintza ederrak guziaz.

Guziak gertaera onen gañean itz egiten zuten, egun guzian nexka gaixoari pakean utzi gabe. Atera zen bezperak entzunta elizatik, eta baten eta bestearen galderai erantzuten zezola, gizon batek sorbaldan ikuiturik esan zion :

—Legearen izenean.

Bernardatxok orduan :

—¿Zer nai duzu?

—Etorri zaitezela nerekin.

¿Nor zen gizon ura? ¿Zer gertatzen zen?  
Orain ekusiko dugu.

Lurdes-ko buruzariak, da esatea, gobiernuko jaunak Jesukristoren etsayak ziran gutxi geyago; eta ala, Masabiell-ko gertaeratatik zerbait indar katolitasunak artu zezakiela iyerri zioten bezin laixter, al zuten gaitz guzia egiten asi ziran. Bazen an gizon bat, Jakomet zertzayona, inguru ayetako proestu edo alguazillen agintaria, erlijioko gauzetan guziak biño okerragoa, federik gabeko gizona. Onek bere antzekoai esan zien :

—Utzi zadazute neri; ni nola nere mende-koakin edozein lekutan sartu baniteken, nik onez edo gaitzez ixilduko ditut nexka petral



orren eta gañerakoen mingañak, eta aztuko dira Masabiell-ko txorakeriak.

Onek biraldu zuen Bernardatxo preso artu zuen gizon ura.

Proestuak Bernardatxo preso artuta daramala ekusi bezin laixter, asten da jendea nexka gairako ark zer oker egin zuen galdeka; eta eza gutu zutenean zergatik zeramaten, guziak aserre santuz bete ziran, edozein gauza Bernardatxoren alde egiteko prestatuak; eta egiaz ez dakit zer gertatuko zen, ordu artan bertan anbarrena iragotzen zen apaiz batek itz egin ezpalie, Jaungoikoaren eskuetan gauza guziak uzteko esanaz.

Proestuak Bernardatxo, Jakomet-ek onlako gauzetarako zuen lekura eramanta, giltzapean sartzen du; andik laixter Jakomet-ek bere aurrean zeukan. Uste zuen onek lenbiziko itzetatik nexka gezurretan arrapatuta, edo nola edo ala, lan ura Jesukristoren kontra bukatuko zuela sarri; biño etzitzaizkan gauzak uste bezela gertatu, tontua ezpazen ere.

Sartzen du Bernardatxo gela batean; begiratzen dio goitik bera zorrotzkiro; eta gero arpegi onakin ezan zion:

—Masabiell-ko arkaitzean norbait agertzen omen zaizu. ¿Egia al da? Esaidazu gaxo orrek gertatu zaizun guzia.

Asi zen Bernardatxo bere gauzak kontatzen, eta Jakomet-ek dena papera batean eskribitzen zuen. Bukatu zuenean nexkak, jartzen da Jakomet, aserre baitzegon bezela, arpegi itxusia-kin, eta zorrotzki aurrari begiratuaz, esan zion :

—Gezurra diozu esan duzun guzian; zu jendea engañatzen zabilta; eta esaten ezpadidazu au dena zuk sortua dela, berealaxe presondegian sartuko zaitut.

Ikaratu zen Bernardatxo pixka bat onen itz zorrotzak adituta; biño nola egiaren jabe baitzen, erantzun zion “ark etzuela ezer sortu; esan guzia egia zela”. Beti bat esaten zuen jakiteko, nastu zituen orduan Jakomet-ek Bernardatxok esantako gauza guziak; eta gero onela naspillatuak irakurri zizkan, ia zer esaten ote zuen; biño bereala Bernardatxok esaten zion “ez dut orrela esan, baizik onela eta ala”, gauza nastuak zuzenduaz.

Sartu zen ontan Bernardatxoren aita Franzisko Jakomet-en etxean, aren alaba justuari iñork gaitzik egin ez zezayon; eta Jakomet-ek, nola uste zuena gertatu ezpaizitzayon, agindu zion Franziskori “galerazi zezayola alabari andikan aurrera arkaitzera joatea”, aita-alabak etxera biralduaz. Orra nola Ama Birjiñak Bernardatxo bere etsayetatik libratu zuen.

## LENENGO IRAKURGAYAREN LAUGARREN SALLA

*Iturri santuaren sortzea; Ama Birjiñak Masa-  
biellen eliza bat egitea eskatzen du;  
lenbiziko milagruak.*

Etzuen nexka gaxoak urrengo goizean (aitaren agindua egiteagatik) arkaitzera joñ bear izandu, baizik eskolara; biño eguardian, etxera zetorreanean, ez dakit zer indar sentitu zuen bere barrenean, eta aitaren borondatea egin nai bazuen ere, laixter Masabiell-ko arkaitzean (eramana bezela) arkitu zen. Bere errosarioa be-launiko errezatu zuen; biño egun artan (ez dakigu zergatik, agian bere aitaren agindua egin etzuelako), etzitzayon zeruetako Erregiña agertu.

Jakindu zuenean Franzisko-k zer gertatu zen,

ezagutu zuen ark agintzea utsa bezela zela, baldin arkaitzera joateko bere desioari Bernardatxok kontra ezin egin bazion; eta ala, andik aurrera nai zuena egiteko baimena eman zion.

Joan zen Bernardatxo urrengo goizetan ere; biño amabost-aldiko zazpigarren eguna arte etzen gauza jakingarririk, dirudienez, gertatu.

Amabost-aldiko zazpigarren eguna osteguna zen, otsaillaren ogei ta bostgarrena. Joan zen Bernardatxo beti bezela arkaitzera; agertu zitzaion laixter Ama Birjiña; eta, beste iñork jakindu ez duen gauza bat aditzera emanta ondoan, esan zion nexkari:

—Zoaz, eta edan zazu; eta garbitu zaitea iturrian, eta jan ezazu aren ondoan jayotzen diran belarretatik.

Altxa zen Bernardatxo; biño, nola inguru artan iturririk ezpaizen, laixter gelditu zen zein iturriren gañean agertu zenak itz egiten ote zion ezin bururaturik; nola ezpaizekien zer egin, eta nola erreka aldean baitzegon, errekarra abiatu zen; orduan Birjiñak deituta esan zion: “Emen dago iturria, emen”, eskuakin oinpean zeukan arroka ondo erakutsiaz.

Bernardatxo belaunka joaten da erakutsitako lekura; ez du ezer ekusten; biño eskuakin lu-

trean zulo txiki bat egiten du; asten da zulo onetan ura jayotzen, betetzen da, gañez egiten dio, eta soroa barrena errekarano dijoa. ¿Zer gertatu da emen? Lenago ezer etzen lekuan iturri eder bat sortu dela. ¡Orra zenbatekoa den zeruko Erregiñaren agintea eta egitea! Bernardatxok Birjiñak esan guzia egin zuen; altxatuta baztertu zen, orduan Maria're ezkutatuz.

Orra, irakurlea, Lurdes-ko iturri sonatua; orra orrenbeste milagro gure onerako egin dituen ur arrigarriaren sortzea. Ur ori ¿non zegoen, edo nora zijoan lenago? Ez dakigu. Orain ¿nondik dator? Ez dakigu. ¿Agortuko al da noizbait? Ez du itxurik. ¿Ur asko ematen al du? Askok: Lasser (Lasserre) deritzayon mediku sonatu batek dio, aren aurrean neurtu zutela bein, eta ordu bakoitzean bost milla ta eun litro ematen dituela; minutu bakoitzean, larogei ta bat.

Urrengo egunean zeruko Erregiñak aginduzion Bernardatxori erregutu zezala pekatariengatik, eta iru aldiz esan zuen “¡Penitentzia! ¡penitentzia! ¡penitentzia!”. Au bera esan zuen Bernardatxok ere Ama Birjiñari erantzunaz, mendiak otsari erantzuten dioten bezela; eta onek esan zituen iru itzak entzun zituzten

guziak, gañerakoan ezer aditzen ezpazuten ere. Gero belaunka (Birjiñaren aginduz) alderatu zen arkaitzarengana, amabost bat metro era onetan leku zakar askian penitentzia egiñaz ibilliaz. ¡A zeñen gauza ederrak erakusten zaizkigun emen mundutarrak!

Urrengo egunetan ere penitentzia egin zezala agindu zion bere eta bestien pekatuengatik, eta belauniko joaten eta etortzen zen lurrari askotan muñ egiñaz belauniko zegon lekutik arkaitzeraño.

Beste egun batean Ama Birjiñak Bernardatxori esan zion joan zedilla eliz-gizonetara, eta esan zezayela “ura agertzen zen leku artan eliza bat egitea nai zuela”. Altxaturik Bernardatxo belauniko zegon lekutik, joan zen bada parroko jaunaren etxera, eta esan zion agertzen zenak zer eskatzen zuen. Arritu zen Peyramalle au entzuteakin; “onelakorik bai ez didala iñork oraindaño eskatu”, esan zuen bere artean. Asko galdera egin zizkan nexkari agertzen zen ura nor ote zen jakin nayeon; baita ere esan zion “etzezala gero iñor engañatu, bestela infernuan betiko pagatuko zuela”. Bernardatxok erantzun zion “ordu artan parroko jaunak itz egiten ziola bezin seguru zegola, Masabiell-ko arkaitzean agertzen zenak ere itz egiten ziola”.

Parroko jaunak etzekien zer egin, zergatik gauza aundiak baitziran bada gauza ayek; eta ala, zeruko gauzak ote ziran obeto jakiteagatik, milagro bat eskatu zion Bernardatxori.

—Emakume ori agertzen den lekuan sasi-arros bat dagola esan didazu —esan zion nexkari—; zoaz bada, eta agindu zayozu nere partetik emakume orri, eliza egitea nai badu, orain bertan sasi-arros ura loratu dedilla.

Badijoa Bernardatxo urrengo goizean goiz arkaitzera, parrokoaren agindua kunplitzera; jartzen da belauniko errosario santua errezatzen, millaka personaz inguratua; biño etzitzayon Ama Birjiña agertu. Triste asko gelditu zen nexka gaixoa eta beste ez gutxi're bai, eta fedegabe gaixtoak berriz parrez. ¿Badakizute ordu artan zergatik etzen Ama Birjiña agertu? Berak esan zion gero Bernardatxori; bederatzia aldean joan zen Bernardatxo berriz ere arkaitzera; belauniko jarri zen, eta laixter zeruetako Erregiña agertu zitzayon.

Galdeu zion orduan Bernardatxok, ia goiz artan zergatik etzen agertu, eta Ama Birjiñak erantzun zion “aurreko gabeen leku artan bertan bear bezela portatu etziran persona batzuek aurrean zeudelako” etzela agertu. Arkaitz zulo artan batek biño geyagok gaba pasatzen zuten,

urrengo goizean Bernardatxoren aldean egoteagatik, eta ala zeuden bitartean Jaungoikoa ofenditu zuten; eta Ama Birjiñak etzuen agertu nai izandu ayek aurrean zeuden artean. Baita ere esan zion orduan Bernardatxok Ama Birjiñari parrokoak zer eskatzen zuen, eta Mariak parra-murritzean begiratu omen zion; agian etzela milagro arren bearrik esan naiko zuen; aski zela iturri berri bat lenago urik etzen lekuan sortua, eta iturri artako urak egin bear zituen sendatze miragarriak.

Lurdes-ko gertaeren sona zabaldu zen bazter guzietara, eta ala alde guzietatik jendea besterik etzatorren. Erriko arrobi-gizonak ere agertu zuten Ama Birjiñari zioten naitasuna, jendearentzat bide bat tiroka arkaitz artean egiñaz.

Asi gaitezen orain milagruen gañean itz egiten; Lurdes-ko milagruak dira gure denboretan gauzikan sonatuenak; milagruengatik dijoa jendea Lurdes-ara; Lurdes-ko milagruakin gure denboretan jendea konbertitzen da. Oraindik etziran iturriaren sortzetik iru lau egun besterik irago, eta alde guzietan milagruen gañean itz egiten zen; egia da jendeak milagrotzat zeuzkala egiazko milagruak etziran gauza asko; biño baita-re egia da ez dirala gertatu diran egiazko milagro guziak liburuetan eskri-



bitu, ez eta erdiak ere; eta ori Lurdes-ko milagruen gañean liburu asko eskribitzen diralarik. Goazen bada milagro batzuek ekustera.

Istorietan lenbizikoa, arrobi-gizon bati gertatu zitzayona arkitzen da. Bazen Lurdes-en gizon bat Luis Burriet (Bourriette) zeritzana, gizon beartsua, biño ona eta zuzena animako gauzetan; Jose bere anayarekin arrobi batean arri ateratzen aritzen zen. Egun batean, bestien artean sutu gabe edo ez dakit nola gelditu zen tiro bat; sutu zen jendea lanean ari zala, eta Luis-en anaya Jose bertan illa erori zen; Luis arri batek arpegian jo zuen, eta begi bat iya aterean utzi zion.

Luzea izandu zen gaixo-aldia; eta mediku onen eskuetan ibilli bazen ere, Luis-i etzitzayon egundaño begia ongi gelditu; Luis-entzat, begi ona itxita, arbolak eta personak bat bera ziran. Irago ziran era onetan ogei bat urte; etorri ziran Masabiell-ko gertaerak; Luis, egunean biño egunean gutxiago ekusten zuelako, bere familiari bear zuena emateko estu samar zebillen; aditzen du nola Masabiell-ko arkaitzean milagro z iturri bat sortu den, eta bereala deiturik bere alabari esaten dio:

—Iturri berritik ur pixka bat ekarri zadazu,

bada uste dut ur arrekin bustita nere begia sendatuko dela.

Ekartzen diote ura; oraindik arrea zegon, bada ordu gutxi zen sortu zela; alaz guztiaz ere, asten da Luis errezatzen eta urakin begi galdua bustitzen; eta bereala, karraxi bat egiñik, dena dardaizan jartzen da; pozak au guzia eragin zion; bada lenago ezer iya ekusten etzuenak, orduan dena ekusten zuen; orra nola Ama Birjiñak arren errezu eta konfiantzari erantzun zion.

Biaramonetan Burriet Lurdes-ko kalea barrera zijoan, eta Dozu (Dozous) zeritzayon Lurdes-ko mediku bat igarotzen ekusi zuen; Jaun<sup>4</sup> goikoak nai izandu zuen, milagrua egiazkoa zela jekin zeiyen. Joan zen laixter aski berarengana eta esan zion:

—Mediku jauna, begia sendatu zait.

—Bai zera —erantzun zion medikuak—; zure begia egundano ez da sendatuko.

—Bai, jauna, bai; ekusi beza; Masabiellen sortu den iturriko urak sendatu nau.

Alderatuta begiratu zion Dozuk: Luisek begi bat bezin garbia zeukan bestea. Ateratzen du papera bat; eskribitzen ditu itz batzuek, eta "irakurri zazu" esaten dio Luisi, begi ona

eskuakin itxita. Luisek berealaxe irakurri zuen dena; eta arritua Dozuk, inguruan bildu zen jendearen aurrean esan zion:

—Zuri bai egiazko milagro bat gertatu zai-zula, bada munduan etzen zure begiarentzat sendagayik.

Au bera esan zuen Vergez zenitzayon beste mediku sonatu batek ere.

Bada Lurdesen beste famili bat Luis Burrietek biño gauza oraindik arrigarriagoak bere etxean ekusi dituenak. Juan zuen izena senarrak, Kruz emazteak; bazuten seme bat Justino zenitzayona, bi urtekoa, eta bere jayotzatik miñez zegona; elbarria zelako zutik etzen egoten, eta, oso argaldua, laixter iltzera zijoan. Egun batean aurra seaskan zegon. Kruz eserita eta Juan zutik seaska bazterrean; ezagutu zuten aurra iltzera zijoala. Jakindu zuen auzoko Franziska zenitzayon emakume batek zer gertatzen zen, eta gurasoak poztutzera eta premian zeudenai laguntzera etorri zen.

Gurasoak esan dedan eran ziardutela, asi zen Franziska aurra iltzen zenean jazteko jantzia antolatzen. Kruzek, guzia naigabetua, etzekien zer gertatzen zitzaion, eta burutik egiña bezela zegon; alako batean altxatzen da, aurra

seaskatik aterata mantalean artzen du, eta laixterka etxetik kanpora dioa, Masabiell-ko Ama Birjiñak bere seme maitea sendatuko diola esanaz.

—Biño, emakumea, ¿nora zoaz? —esan zion senarrak—; ez dezu ekusten oraindik il ezpada aurra, zuk ilko duzula?

Biño ama gaixoa, ezer entzun ezpalu bezela, bidean deadarka errezatuaz, iturri santura joan zen; batek biño geyagok esan zuen ura ekusita :

—Burutik egiña dago andre gaixoa.

Belaunikatzen da Masabiell-ko arkaitzaren aurrean; eta pixka bat errezatuta joaten da iturrira, eta, jende asko begira zegola, ateratzen du mantaletik bere semea (ez dakit illik edo bizirik), eta bururaño iturri-bazterrean urez bete zagon aska batean sartzen du. ¿Zenbat denboran iduki zuela urean esango zenuteke? Gutxienaz ordu laurden batean, eta ori otz gogorra egiten zuelarik; osasun oneko gizon bat iltzeko ez litzake asko geyagoren bearririk. Biño emakume ark fede asko zuen; begiak zabal zabalik zituela, denbora guzian aurrari begira egondu zen; eta azkenean, iduriturik aurrean sendatzea gomeniko etzela edo ez dakit zergatik, ateratzen du uretik, biltzen du

mantalean, eta an dijoa etorri bezela laixterka etxera. Senarrak, aurra ekusi zuenean, esan zion :

—Ez nizun nik esaten eskuetan ilko zitzazula?

Biño ama gaixoak erantzun zion :

—Aurra oraindik bizi da, eta Ama Birjiñak sendatuko du.

Eta au esanik, seaskan jarri zuen bere seme maitea.

Kruz aurraren bazterrean eserita zegon, sendatua noiz ekusiko ote zuen zai, eta jo gauza miragarria!, aurrak esnasia bazuela ezagutu zuen eta lo zegola; deitzen dio senarrari, eta onek ere aurra lo dagola dio. “Utzi dezayogun pakean —esan zuten beren artean—, ekusiko dugu zer gertatzen den.

Justino gau guzian lo egondu zen bein ere esnatu gabe, eta Kruz arren bazterrean erne asko; azkenean urrengo goizean esnatu zen aurra. ¡Ai zer atsegiña ama gaixoarentzat! Koloriak ondu zitzaizkan, eta alde guzietatik sendatua zegolako itxura zeukan. “Jaiki egin nai nuke” esan zuen aurrak bein eta berriz; biño Kruzek etzion utzi, bada etzuen uste oso sendatua zegola; eta ala egun ura seaskan irago

zuen eta urrengo gaba're bai; biño bigarren egunean, nola Juan eta Kruz lanera etxetik atera baiziran, egundaño zutik norbaiten laguntza gabe egondu etzen aur ura, berez jeikitzen da, jazten da, eta an dijoa bazter guziak nastuaz etxe guzia barrena; pensa zenezateke orain zer atsegiña eta zer poza artuko zuten guraso on ayek etxera etorri ziradenean, eta nola Maria Birjiñari eskerrak emango zizkaten.

Aurra azi zen, eta osasun ederrekoa ekusi zuen Lasserrek berak amabost urte zituenean, eta agian oraindik bizi da; orra zenbat lezaken Lurdes-ko Ama Birjiñak.

## LENENGO IRAKURGAYAREN BOSTGARREN SALLA

*Beste milagro batzuek; amabost-aldiko azkene-  
ko eguneko agertzea.*

Biño esan ditzagun itz gutxiagotan gauzak, bestela ez dugu egundaño bukatuko. Krozat zeritzat emakume alargun bat gutxienaz ogei urte bazen oso gortua zegola, eta Lurdes-ko ura artuta Jesus batean gorraidea oso kendu zitzaion.

Augusto Bordes aspaldian urguna edo kojua zen, eta Lurdes-ko urarekin izterra biguinduta zuzendu zitzaion. Benita Kazok (Kazeauz) iru urte zeramazkien oyea kalentura ta sayetseko miñakin; aberatsa zen, eta dirua pranko atera zuen sendatzeagatik, biño alperrik; medikuak esan zuten etzaukala zuzenbiderik. Gau-

zak ontan zeudela biurtu zen Ama Birjiña Lurdes-koarengana; eta beraren laguntzarekin, ur pixka bat edan ta bañu batzuek artuta, ordu batetik bestera oso sendatua gelditu zen.

Blasa Supenek (Soupenne) begietako miña zuen; betazalak aunditu eta kanpoko aldera jiraturik, betazaletako illeak erori zitzaizkan, oñazea pranko sufritu bear zuela. Izandu zen bañuetan leku batean eta bestean; artu zituen medikuak eman zizkaten sendagai guziak, biño dena probetxu gabe; azkenean entzun bear izandu zuen ark ere medikuen aotik "etzeukala erremediorik". Orduan andre gaixoa joan zen Ama Birjiña Lurdes-koarengana; garbitu zituen begiak iturniko urarekin; eta lenbiziko aldiz ez oso, biño bai asko sendatu zitzaizkan; bigarren aldian etzitzayon miñaren arrastorik ere gelditu; betazalak zuzendu zitzaizkan, illeak jayo're bai, eta egundaño ezer izandu ezpalu bezela gelditu zen.

Oraindaño kontatu ditudan sendatze guztiak Lurdes-en bertan gertatu ziran, biño Ama Birjiñaren laguntzak urrutiago're zabaldu ziran; ekusi dezagun milagro aundi eta eder bat.

Bazen Nay zeritzayon Frantziko erri aundi batean amabost urteko mutil gazte bat, Enrike Busket izenarekin. Milla zortzireun da berro-



gei ta amaseigarren urtean txarraldi gogor bat izandu zuen kalentura tifuarraizakin; bizirik gelditu zen, biño lepoaren eskoiko aldean okabill biño aundiagoko zornea zerion zauri bat gelditu zitzayon. Pensa gizagajoak zenbat sufrituko zuen. Egin zituen alegiñak osagille edo mediku sonatu batek ura sendatzeagatik, biño guzia alperrik.

Ekusirik azkenean Enrikek egunean biño egunean okerrago zijoakiola, eta aditurik Lurdes-en gertatzen ziran gauzak, ark ere osasuna Ama Birjiñari eskatzea pensatu zuen. Biño gizonen idurian etzegon gizagajoa etxetik urrutira ateratzeko; eta ala etzioten gurasoak Lurdes-ara joaten utzi. Jakiñik orduan Enrikek auzoko emakume bat andik laixter Lurdes-ara zijoala, esan zion iturri santuko ur pixka bat ekarri zezayola. Ala egin zuen emakume ark; eta Enrikek asteazken arrats batean, belauniko bere etxeko guziakin Ama Birjiñari errezaturik, garbitu zuen ur santuakin bere zauri itxusi ura, eta oeratu zen.

Biaramon goizean esnatu zenean — ¡gauza miragarria! — etzuen miñaren arrastorikan ere arkitu; ez zauririk, ez materirik, ez oñazeririk, etzitzayon ezertxo're gelditu. ¡Gizagajoak atsegin ederra artuko zuen!

Milagro au egiazko milagrotzat guziak eza-  
gutu zuten, baita gaixoa sendatzen sayatu zen  
medikuak berak ere, naiz kristau ona ez izan.  
Enrique Laserrek egin zion sendatuari bixita  
bat; eta berak dionez, galdera pranko sendae-  
ra onen gañean egin ere bai berari; orain osa-  
sun ederrakin ieltserua omen da bere aita be-  
zela. Baño goazen berriz Bernardatxorengana  
eta Masabiell aldera.

Guziak Bernardatxoren ondoren zebiltzan  
zer esaten zuen aditu nayan, eta guziak be-  
raren gañean itz egiten zuten. Etxera ere joa-  
ten zitzaizkan jende asko, batez ere urrutitik  
zetozenak eta aberatsak; eta Bernardatxo beti  
miragarria zen.

Naiz jende beartsuak izan, eta bizitzeko es-  
ta aski ibilli, etzuten ez Bernardatxok eta ez  
bere gurasoak egundaño limosna bat ere artu.  
Illunabar batean etorri zitzaizen kanpotar abe-  
rats bat; Bernardatxori nai zituen galdera gu-  
ziak egin zizkan; eta azkenean, ekusirik fa-  
mili arren premia, ateratzen du bolsa bat urrez  
betea, eskaintzen dio nexkari aurrena, eta ge-  
ro bere gurasoai, Bernardatxok artu nai etzue-  
lako; baño ez batek eta ez besteak etzuten  
ezertxo're artu, erakutsirik ederki onela, etzi-  
rala Masabiell-ko gauzak dirua ateratzeko sor-  
tuak, gaixtoak esaten zuten bezela.

Gauzarik aundiena da, orrenbeste onren artean etzuela Bernardatxok arrokeriaren arrastorik ere sentitzen. Guzien ezpañetan zebillen; eta Masabiell-ko arkaitzera zijoanean, ura urrutian agertu bezin laixter guziak esaten zuten: “¡Badator santa! ¡Badator santa!”. Gero jendeak erdian artzen zuen zerutik etorri baitzen bezela, eta alaz guztiaz ere etzitzayon besteak baño geyago zela egundaño gogoratu, etzen arrotu. ¡Zeruko Erregiñak ontasunez eta umildadez aberasten zion anima!

Joan zan Bernardatxo bigarren aldiz parrokuarengana, eta esan zion berriz ere nola agertzen zenak nai zuen leku artan eliza bat egitea. Etzion Peyramalek lenbizi bezela milagrorik eskatu; konsideratu zuen berak ere lenago ezer etzen lekuan iturri bat sortu izana aski zela, etzela milagro aundiagoaren bearrik. Joan zen bada Peyramale Obispo jaunarengana; esan zion zer gertatzen zen Lurdes-en; baño Laurenze Obispo jaunak arrazoyakin erantzun zion, oraindik pixka bat itxedon zezala, eta bere edo besteen bitartez jakin zezala Masabiellen gertatzen zen guzia.

Etzebiltzan onen zentzu Departamentuko agintari, alkate eta gañerako gobiernuko jaunak; guziak elkarren antzekoak eta elizari de-

bozio aundirik etziotenak ziran; eta ala ayen partetik Masabiell-ko gertaerak laixter aztu bearko zuten. Egun batean, ez dakigu zergatik, iturri santuaren inguru guztia soldaduak eta xaldarmak inguratu zuten, eta denbora aldi batean etziran ez gabez eta ez egunez andik aldaratu; ez dakigu zeren beldurra zuten. Onen antzeko aterakayak ekusiko ditugu geyago ere.

Esan nuen lenago nola Ama Birjiñak eskatu zion Bernardatxori, amabost-aldi batean joan zedilla egunero arkaitzera; baita joango zela nola onek zeruko Erregiñari agindu zion ere; eskribitu ditut amabost-aldi artan gertatu ziran gauzik nabarmenenak; eta ala orain itz bi bakarrik esango ditut azkeneko eguneko gertaeren gañean.

Goizean goiz aski ogei milla persona gutxienaz bildu ziran iturriaren inguruan. An zeuden frantzesak, gaztelaniakoak, euskaldunak, Bernardatxo joan biño lenago arkaitzaren aurrean errezatzen. Agertu zen zorioneko nexka au, eta guzien ezpañak esan zuten:

— ¡Ara non datorren santa! ¡Ara non datorren santa!

Jarri zen Bernardatxo belauniko arkaitzaren aurrean, eta baita beste guziak ere bakoitza bere tokian. Ama Birjiñak esan zion Bernarda-

txori lenago bezela, edan zezala iturri berriko uretik, eta jan zezala arkaitzaren oñean zegon belarretik, eta ala egin zuen Bernardatxok; agindu zion baita ere pekatariengatik erregutu eta penitentzia egin zezala; beste asko gauza're esan zizkan, biño etzituen Bernardatxok agertu; bera ikusi zutenak esan zutena da "iru edo lau aldiz belauniko zegon lekutik altxatuta arkaitzarengana alderatu zela, españak mugitzen zituela, noizean bein par pixka bat egiten zuela, eta zeruan zegola zirudiela Ama Birjiñakin izketan".

Amabost-aldi sonatu ura ezkerontz etzitzaion Ama Birjiña Bernardatxori ogei ta bat egunean agertu; etzen joaten ere arkaitzera, zergatik bazekien Ama Birjiña ekusteko desio aundi bat sentitzen etzuenean bere barrenean, etzitzayola agertzen. Jendea bai, bazijoan egunero millaka ta millaka naiz Bernardatxo ez joan, jartzen ziran belauniko arkaitzaren aurrean, kandela bedeinkatuak pixtuak eskuan zeuzkatela, eta antxe egoten ziran errezatzen fede biziarekin; gero iturri santuan edaten zuten, garbitzen ziran, botilla eta beste al zituzten ontziak ur santuz beteta etxera biurtuaz.

Ama Birjiña Martxukoaren egunean sentitu zuen Bernardatxok berriz ere arkaitzera joa-

teko gogoia; joan zen bada goizean goiz aski; belauniko errezatzen jarri zen, eta Ama Birjiña agertu're bai laister. Askotan galdetu zion Bernardatxok nor zen, baten eta bestien aginduz; biño etzuen Ama Birjiñak aurren aldian esan nai izandu. Igerri zioten guziak nor zen; biño seguruago egoteagatik, dena fedez eta uste onez beterik esan zion berriz ere Bernardatxok Mariari:

—¡Ai beza, esan bezait arren nor den!

Ama Birjiña, zerutarren zoriona den par pixka bat ezpañetatik ixuriaz, begiratu zion, biño etzion ezer erantzun. Bernardatxok bigarren eta irugarren aldiz egin zion galdera bera:

—¡Ai beza, esan bezait arren nor den!

Azkenean bada Ama Birjiñak, bularrean batuak zeuzkan eskuak graziak zabaltzeko bezela banakaturik, begiratu zuen lurrera, zabaldu zituen ezpain bedeinkatu ayek eta esan zuen:

—*Ni naiz jatorrizko pekaturik gabeko sortzea.*

Da esatea: Ni naiz jatorrizko pekatuaren kutsurik gabe sortua. ¡Itz pozgarriak nexka gaixo arrentzat! ¡Itz pozgarriak benetan katoliko guzientzat, eta batez ere Aita Santu Pio bederatzigarrenarentzat! Oraindik lau urte

etziran irago, fedeko gauzen artean Ama Birjiñaren sortze kutsu-gabekoa're jarri zuela; eta ongi egin zuela milagro batekin Jaungoikoak aditzera eman nai izan baitzuen bezela, agertzen da zeruetako Erregeña eta esaten du, ez "Ni naiz Jaungoikoaren Ama", edo "pekatarien kaya eta gorde-lekua", edo beste onelako gauzen bat, baizik "Ni naiz Birjiña, jatorrizko pekatuaren kutsurik gabe sortua". ¡Arrazoyakin egun beretik egiazko debozio bat Ama Birjiña Lurdes-koari izandu zion Aita Santu sonatu ark!

Beste egun batean joan zen Bernardatxo arkaitzera, jarri zen belauniko gutxienaz amar milla personaz inguratua, eta beste milagro eder bat gertatu zen guzien aurrean. Denbora artarako argi asko elizetan bezela Masabiellen ere pixtutzen zituzten, eta esan dedan egun onetan kandela aundi baten ondoan belaunikatu zen Bernardatxo.

Ama Birjiña agertu zenean, oi zuen bezela eskuak Mariarontz jaso zituen; biño esku bat kandela pixtuaren gañean jarri zuen, edo obeto esateko, kandelaren gañean gelditu zitzaion; eta esaten dut gelditu zitzayola, zergatik Bernardatxok Birjiña agertzen zenean etzuen berak nai zuena egiten, baizik zeruko indar

ark eragiten ziona. Nola kandela aundia baitzen, garrak indar aundia zuen, eta beragatik beatzen artetik esku gañera ateratzen zen, aizeak ara onara zabaltzen zuela; onelaxe egondu zen Bernardatxo orduaurden bat baño geyagoan guzien aurrean. Azkenean, Ama Birjiña ezkutatu zenean, kendu zuen eskua; biño ¡gauza arrigarria!, etzion suak ezer ere egin, ikuitu ezpalu biño geyago.

Denbora artarako Lurdes-ko langilleak bide on bat egin zuten Ama Birjiña agertzen zen lekura; guzia borondatez eta beren kontura. Baita esolesi bat ere egin zuten, Ama Birjiñaren aurrean jendea geyegi alderatu etzeiyen.

Aundia zen denbora ayetarako jendearen debozio edo jayera Ama Birjiñarekin; eta nola baitzekiten Ama Birjiñak leku artan eliza bat egitea nai zuela, esolesi barrenera dirua lan ortarako botatzen asi ziran. ¡Gauza miragarria! Bein baño geyagotan egondu ziran an lurrean guzien aurrean milloi bat pezeta biño geyago, milla bider milla pezeta biño geyago, ori gau eta egun eta guardirik gabe, eta alaz guztiaz ere etzuen iñork ezertxo ere ostu edo lapurtu.

Goazen orain gobiernuko jaunen lotsagabekeriak ekustera. Urte onetako mayatzaren aurrenean, Massy jauna, departamentuko agin-



taria, Lurdes-en arkitzen zen. Onez edo gaitzez Lurdes-ko gertaerak oso ayenatzea sartu zitzayon buruan; eta ala, deiturik illaren la-bean alkateari eta xaldarmen agintariari, alkateari agindu zion Bernardatxo preso sartu zezala; eta besteari, arkaitzeko esolesia eta onen barrenean zeuden gauza guziak kendu ta erriko-etxera edo konsejura eraman zitzala. ¡Orra zer diran erlijio eta federik gabeko gizonen burutazioak!

Urrengo egunean edo egun berean alkatea Parrokoari zer gertatzen zen esatera joan zen; biño Peyramale, guzia aserre santuz betea, altxatzen da eserita dagon lekutik, eta esaten dio alkateari:

—¿Zer pensatzen dezute? ¿gauzak onela egiten dirala? Ez, ez dira gauzak onela egiten. Ni neroni, besterik ezpada, jarriko naz nexka gaixoaren etxeko atietan; eta Bernardatxo preso artu nai duenak, nere gañetik irago bearko du.

Ikaratu zen alkatea, bai'ta Massy're alkateak eskribitu ziona irakurri zuenean, eta Bernardatxo etzuen iñork preso artu.

Etzen au bera gertatu Massabiellen. Jakomet, xaldarmen agintaria, atera zen bere orde-

na artu zuenean etxetik; joan zen batera eta bestera zaldi baten billa arkaitzeko gauzak ekartzeko; noizbait bear ta eman zioten bat perrazalle baten etxean. Joan zen onekin Masabiell-ara guzia jendez inguratua; estu aski zebillen gizagajoa, naiz gaixtoa izan, bada aundia zen jendearen aserrea; ez dakit nola bizirik gelditu zen egun artan. Bildu zituen arkaitzeko kandela, imajiñ, diru eta beste gauza guziak; aizkora batekin urratu ta puskatu zuen esolesia, etzuen ezer ere bere tokian utzi. ¡Jaungoikoak eta Ama Birjiñak barkatu dezayotela!

Ekusirik Massy jaunak Bernardatxo preso artzeko modurik etzela; “beste bide batetik nijoan” esan zuen bere artean. Deitu zion kimiko edo uren kalidadeak esamiñatzen zekien jakintsu bati; eta eskupetik zerbait emanaz, esan zion:

—Esamiñatu zazu Masabiell-ko ur ori; eta jarri zazu eskrituran ez dirala milagrokoak ur orrekin egin diran sendatzeak; bere izatez duela ur orrek sendatzeko birtute edo indar ori.

Alaxe egin zuen Latur de Tri zeritzayon jakintsu ark; orra nola gertatzen diran gauzak.

Zabaldu zen alde guzietara beraren eskritu-

ra, baño laixter ezagutu zuten denak zer gertatzen zen, eta asi ziran guziak “esamiñ falso bat egin zen ezkerro, egiazko bat ere egin zedilla” esaten.

¡A Massy gizagajoa! ¡Zeñen ederki zero-rrek zabalduetako sarean arrapatua gelditu ziran! Bildu ziran bada egun batean Ayuntamientoko jaunak; eta eskatu zioten alkateari, erriko jendearen izenean, “deitu zezayola kontzientzi garbiko esamiñatzalle jakintsuren bati, eta erriaren kontura esamiñatu zezala zuzen ur ark Latru de Tri-k esan zuen birtuterik berez bazuen edo ez”. Alkateak begiratu zuen alde batera eta bestera; eta jakiñik Tolosa Frantzikoan bazela eskatzen ziran kondizioetako gizon bat, deituta agindu zion uraren esamiña egin zezala.

Gizon onen izena Filol zen, egiaz jakintsua, eta gañera maisua jakinduri ontan. Egin zuen egun gutxiren buruan uraren esamiña, eta ara beste asko gauzen artean zer esaten zuen:

—Lurdes-ko arkaitzeko iturriko ura, edateko ur ona eta kare-arria duten mendietako uren antzekoa da. Ur ori artuta gertatu diran sendatze miragarriak ezin litezke esplikatatu oraindaño gizonak dakigunakin, ur orren kalidadien

bitartez. Ur orrek ez du bere izatez osasuna eman lezaken kalidaderik.

“Tolosa (Frantzikoan), Aguztuaren zazpian, 1858.

*Filhol.”*

## LENBIZIKO IRAKURGAYAREN SEIGARREN SALLA

*Beste milagro batzuek; gobiernuko jaunen burutazioak; Bernardatxoren lenbiziko komunioa.*

Oraindano ikusi ditugun Lurdes-ko sendatze guziak derrepentekoak izandu dira; ikusi dezagun orain bat pixkaban pixkaban egiña. Gez deritzan Lurdes ondoko erri txiki batean bazen zazpi urteko mutiko bat, Lasbarell deitzen ziotena.

Konkoxua jayo zen gizagajoa, konkor aundi bat aurrean eta beste bat atzean zituela; etzen bein ere zutik ibilli, izterrak ere indarrik gabe eta iya igartuak zituelako; eta guraso gaxoak entzun bear izandu zuten erriko medikuaren aotik "aur arrentzat etzela sendatzerik".

Gauzak onela ziardutela, jakindu zuten Lurdes-en zer gertatzen zen; ekarri zuten bereala Lurdes-ko ura; amabost-aldi batean garbitu zuten aurra urarekin, biño sendatzerik gabe. Etzen orrengatik guraso ayen Ama Birjiñaganako konfiantza aitu; ekarri zuten berriz ere Lurdes-ko ura, lenago bezela aurra garbitzen segitzeko, eta urte artako Ostegun Santu egunean eman zituen aurrak, iñoren laguntzik gabe, pauso batzuek; garbiturik berriz ere egun batean eta bestean, oso sendatu zen aste gutxiren buruan; guziak arritzen zirala, zutitu zen, ixterrak aragiz jantzi zitzaizkan, eta ezer iñoiz ere izan ezpalu bezela gelditu zen. Onen antzera sendatu ziran beste batzuek ere denbora berean.

Lurdes-tik legua batera, Lubaxá (Loubajac) izena duen erri batean bazen emakume bat emezortzi illabeteen ezertarako izandu etzena. Bein batean ezkurra biltzen ari zela, aritz gañetik erorita eskoiko besoa oso atera zitzayon eta gañera eskumuturra. Besoa eta eskua bere lekuan jarri zizkaten; biño, ez dakit nola, eskuko lenbiziko iru beatzak igartuak bezela mugitzen etzirala gelditu zitzaizkan. Andre gai-xoa etzen ezertarako gauza: ez josteko, ez gal-tzerdia egiteko, ez zelayarako.

Gau batean esnatu zen bat-batean, eta Lur-

des-era joan bear zuela buruan sartu zitzayon, an sendatuko zela. Jaikitzen da, esnatzen ditu semietatik bi, eta goizeko iruetan bideari ekin zion. Sartu zen Lurdes-en, ikusi zuen Bernar-datxo; belaunikatu zen gero Masabiellera joanta, bere bi semeak aldamenean zituela. Bukatu zuenean errezua, alderatu zen iturrira, busti zuen urean eskua, eta bat batean beatzak bigundu zitzaizkan, egundaño ezer izan ezpalu bezela gelditurik.

Mariana Garró zeritzayon emakume bati amar egun biño gutxiagoan arpegia sendatu zitzayon Masabiell-ko urarekin garbituaz; min-bizia zuen, eta arpegi guzia artzen zion.

Beste emakume bati burutik oñetaraño gorputzaren alderdi bat dena gogortu zitzayon; biño Lurdes-ko uretik baso bat edanta bat-batean sendatua gelditu zen.

Gobiernuko jaunak denbora ontan ere lenago bezela Lurdes-ko gertaerak nola aztu-aziko zituzten pensatzen ziarduten. Gauza jakiña da Massy, Jakomet, alkatea eta gañerako oen antzekoak aitzakiren baten ondoren zebiltzala arkaitzera zijoan jendeari kastigu on bat emateko, zergatik ekusten zuten jendea atzendu-azitzeko au zela modurik onena.

Gau batean, ez dakigu nork, biño jendeak

zionez gobiernuko jaun ok berak edo oen antzekoak, iturri santuko kañoak eta kandaburak purrakatu zituzten, ura artzeko zegon ontzia're loyez eta larriz beterik. Asko minberetu zen jendea jakindu zenean urrengo egunean zer gertatzen zen; biño, Jaunari eskerrak, etzuen okerrik egin, eta alkatearen aginduz berriz ere konpondu zuten iturria.

Ekusirik Massy jaunak ordurañoko burutazioak gaizki atera zitzaizkela, ikasi zuen gauzak obekiago pensatzen eta arrazoyaren antz pixka batekin badere egiten. Zer egin pensatzen zebillela, egun batean bururatu zitzaion Masabiell-ko arkaitz ayek guziak erri-lurrak ziralara, eta beragatik lur ayetan alkateak agintzen zuela, eta edozeñen kontra nai zuen guzia egin zezakela. Etzuen Massyk geyagoren bearrrik izandu; alkateari berealaxe agindu zion eman zezala onako bando au:

“Lurdes-ko alkateak,  
bere agintarrietatik etorri zaizkan erakuskintzak ekusita ondoan, erlijiooko gauzetan eta guzien osasunean Masabiell-en errezatuaz eta ango ura edanaz okerrik gertatu ez deiyen,

eta ur orrek beste bañu-etxietan izaten diran ur-sendagayaren antzekoa dirudielako, eta



orrelako urik gobienuaren baimenik gabe edan ezin dedillako, agindu du

galerazia gelditzen dela esantako iturritik ura artzea;

baita ere Masabiell-ko ur-bazterreko erri-lurrean sartzea;

itxi dedilla esolez eta olez arkaitzarako sarrrera;

jarri ditezela esola batzuek abisu onekin: "ezin liteke sartu inor erri-lur ontan";

bandu onen kontra zerbait egiten duena, kastigatua izango dela;

proestu edo alguazillen agintaria, xandarmak, mendi-guardak eta Ayuntamentuko jaunak emen agintzen dena egin deiyen enkargatuak gelditzen dirala."

Kosta zitzayon alkateari pixka bat bando au ematea; biño azkenean, alkatetza ez galtzeagatik, egin zuen bere agintariak erakusten zion guzia. Jarri zuten bandua kale-kantoi guzietan, tronpeta soñuarekin denai aditzera emanta ondoan; itxi zuten olez iturriko bidea; jarri zituzten letriuak inguruan, eta bete zituzten ez gabez eta ez egunez kentzen etziran armadun jendez bazter guziak. Alaz guziaz ere etzuen jendeak iturri santura joatea utzi; bost pezeta

zen multa sartzen zenarentzat, eta asko lenbizi zegon xandarmari bost pezeta emanta, presko asko iturrira joaten ziran.

Aundia zen jendearen minberetasuna eta aserrea; guziak gertaera oon gañean itz egiten zuten, eta iru lau aldiz gabez joanta bota zituzten erre kara arrapatu zituzten ol eta esola guziak, onela iturniko bidea garbituaz. Beste asko berriz arkaitzaren gañetik jetxita sartzen ziran iturrian, miñez edo gaixo zeudenak bizkarrean zeramazkitela, eta onela sendatu ziran bat biño geyago. Orazioa egitera arkaitzera joategatik, igeri askok gabez ibai edo erreka iragotzen zuten. Guardian zeudenetatik ere batzuek lenbizi egiten zutena, belauniko jarrita errezatzea zen.

Bein batean juezak, legeak agintzen zuen biño multa aundiagoa eman zion emakume bati; joan zen au gorago zegon beste juez batengana, eta juez onek legeak agintzen zuena're barkatu egin zion. Gertaera au jakindu zenean Lurdes-en, aundia izandu zen guzien poza; bildu ziran millaka iturri ondoko itxituraren aurrean, eta "guk garaitu dugu" esaten zuten deadarka guziak; alako batean, naiz armadun guziak an egon, abiatu ziran piskaban piskaban aurrera; eta nola asko baitziran, etziran xal-

darmak alto egitera atrebitu, sartu zen jendea iturrian; errezatu zuten; edan zuten iturriko uretik, eta etzien iñork ezer ere esan.

Denbora ontan egin zuen Bernardatxok bere lenbiziko komunioa, garagarrillaren iruan, Korpus egunean. Aundia zen ura ikusteko guziak zuten desioa, eta ala etzioten pakean uzten; alaz guziaz ere etzuen Bernardatxoren biotza arrokeriaren kutsuak ere ikuitu; arpegia alaya, garbi jantzia, edade onetan besteak izaten dituzten txorakeririk gabe, guzien naye-koa zen. Naiz beartsua izan eta nai adiña ogi etxean ez ikusi, etzuen iñoiz ere ezer eskaintzen ziotenetatik artzen. Bein batean, askotan gertatzen zen bezela, egondu zen emakume aberats bat Bernardatxorekin izketan; eta azkenean, nexkari zer bait eman naye an, eskue-  
tan zeraman asko balio zuen errosario bat Bernardatxorenarekin trukatu nai izandu zuen; biño etzion artu nexkak, bere errosario ezer balio etzuenarekin gelditu nayago. zuela esanaz.

Beste batean berriz eliz-gizon batek zillarrezko diru bat eskañi zion; ikusirik etzuela artu nai, esan zion artu zezala eskaleen bati limosnatzat emateko beenik; guzia alperrik: "obea da berorrek berak ematea" erantzun zion Bernardatxok.

Lenbiziko komunioa eginta laixter, txarraldi bat etorri zitzayon Bernardatxori; ikusirik bere gurasoak agian pakean uzten etziotelako zetorkiola, amabost edo ogei bat egunerako bafñetara biraldu zuten: etzitzayon gaizki etorri Bernardatxori, bada bazeukan aspaldian txoko batean sartuta bere Jaungoikoarekin bakarrik egoteko zalea.

## BIGARREN IRAKURGAYAREN LENBIZIKO SALLA

*Ama Birjiñaren azkeneko agertzea; Obispo Jaunak Lurdes-ko gertaeren gañean lenbiziko ordenak ematen ditu.*

Denbora ontan asi zen berebiziko jendea Lurdes-ara kanpotik etortzen. An zetozen Frantziko beste lekuetatik, Ingalaterra-tik, Belgika-tik, Alemania-tik, España-tik; itz batean, alde guzietatik; aberatsak eta beartsuak, jakintsuak eta ez-jakiñak, Obispo ta Arzobispo jaunak, gerra-gizonak, gauza guzietako agintariak.

Lurdes-ara allegatu orduko bazekiten an gertatzen zen guzia; eta lenbizi denai burura zertorkiena zen Bernardatxo ikustea. Deitu zion egun batean Obispo jaun batek; esan zion

kontatu zezayola Masabiellen Ama Birjiñarekin gertatu zitzayon guzia. Egin zuen Bernardatxok agindu zitzayona, oi zuen bezela kontuz eta garbi, batere izutu edo geyegi lotsatu gabe. Bukatu zuenean, Obispo jauna debozioz iya negar egiñean zegon, konsideraturik nola nexka pobre arren arpegian bein baño geyagotan Ama Birjiñak, zeruetako Erregiñak, Jaungoikoaren Amak bere begi bedeinkatuak jarri zituen, biotz maitatiarekin begiratzen zio-la; eta bat-batean, Bernardatxoren aurren iya belauniko jarririk, esan zion erreza zezala argatik eta bere mendean zituen kristauengatik, eta eman zezayola bere bendizioa. An zegon Bernardatxorekin batean Peyramale, Lurdesko parrokoa; eta bereala Obispo jaunari besotik elduta zutitu-azirik "ez nexkak berorri, baizik berorrek nexkari eman bear dio bendizioa" esan zion. Ordurako, dena lotsatua, belauniko zegon Bernardatxo; eta Obispo jaunak bere bendizioa eman zion.

Bazijoazen denbora ontan illabete bi Bernardatxori zeruetako Erregiña azaltzen etzitzayola; biño Uztaren amaseyea, Ama Birjiña Karmengoaren egunean, Masabiell-ara joateko gogo aundi bat sentitu zuen Bernardatxok berriz ere. Joan zen bada; belaunikatuta errosarioa errezatzen asi zen, eta bereala aspaldian azaldu

etzitzayona azaldu zitzayon. Illunabarreko zortziak ziran; egun artan ikusi zuen Ama Birjiña emezortzigarren eta azkeneko aldiz.

Bernardatxo errekaen beste aldean zegon be-launiko; zergatik, len esan nuen bezela, itxia zegon denbora ontan iturriko sarrera; biño alaz guziaz ere Ama Birjiña betiko lekuan aldetik aldera bezela ikusi zuen. Etzion ezer esan; pixka batean begira egonduta, betiko ezkutatu zen. Nonbait nexkak egin bear zuen guzia egiña zegon; orrengatik itz egingo etzion.

Lenago adierazi dedan bezela, jende asko zertorren denbora ontan Lurdes-ara, inguruetan bañu-etxe asko diralako; eta jakiñik ok zer gertatzen zen Masabiellen, asi ziran galdetzen ia Obispo jaunak eta gañerako eliz-gizonak zer zibten gauza ayen gañean; ia sinistu bear ziran edo ez; au esaten zuten zergatik denbora artaraño etzuten eliz-gizonak gauza ayen gañean itz egin, zertara zijoazen ikusi artean. Gañera denbora artan bertan mutil koskor batzuek esaten asi ziran, ayek ere Masabiellen ez dakit zer beste munduko gauzak ikusten zituztela; eta ikusi zituztela esaten zuten gauz ok etziran egoki egokiak, baizik pranko lotsagarriak; jendeak zionez, bat edo batek gauza falsoak sortu zituen eta mutil-airi erakutsi, orrela egiaz-

koak aztu zitezten. Nada, gauzak onela ziar-  
dutela, ikusi zuen Lurdes-ko parrokuak oso go-  
meni zela Obispo jaunak gauza ayen gañean  
itz egitea, eta ala berriz ere beste bisita bat  
egin zion.

Obispo jaunak, ezaguturik mintzatzeko den-  
bora etorri zela, Uztaren ogei ta zortzian emen  
jartzera nuan ordena au eman zuen :

“Bertran Severo Laurenze, Jaungoikoaren  
errukiz eta Aita Santuaren aginduz Tarbes-ko  
Obispoak,

bere mendeko eliz-gizon eta gañerako kris-  
tau guziaz osasuna eta Jesukristoren bendizioa.

Aurtengo otsaillaren amaika ezkeroz gertatu  
dira Lurdes-en gertaera miragarriak, aldeko de-  
nak eta urrutiko askok jakindu dituztenak.

Bernardatxo Subiru, Lurdes-ko amalau urte-  
ko nexka batek dio, zeruko zeribait ikusi due-  
la Masabiell-ko arkaitzean, eta Birjiña peka-  
tuaren kutsurik gabea agertu zayola. Arkaitz  
artan bertan iturri bat sortu da; eta diotenez,  
ur onek, naiz edanta eta naiz berarekin bus-  
tiaz, asko persona sendatu ditu milagroez. Asko  
kristau, ez bakarrik gure mendekoak, baizik  
baita beste Obispoen mendekoak ere, iturri ar-



tara dijoaz Ama Birjiñaren izen santua aboan dutela, beren bearezen sendatze billa.

Gobiernuko jaunak izandu dute egitekoa pranko gertaera ookin.

Joan den Martxoa ezkeroz guziak eskatzen digute, esan dezagula gauz oon gañean deritzaguna.

Aurren aldian ez giñan mintzatu, kontuz ibilli bear genuela ezagutzen genuelako, lenbiziko jendearen berotasunak aztutzen ziradenean zer gertatzen zen ekusi artean.

Iru jende moduk eskatzen dute gure iritzia gauz oon gañean, biño ez guziak asmo bera-kin:

Batzuek dira, Lurdes-en gertatzen diran sendatze eta beste gauza guziak sorginkeriak eta jendea engañatzeko sortutako gauzak dirala, ezer esamiñatu gabe, diotenak. Eta edozeñek pensa lezake, ez dugula guk gauzak esamiñatu gabe, ok esaten dutena esan nai; oon periodikuak zabaldu dute alde guzietan Lurdes-ko gauzak ez dirala sorginkeriak besterik, eta dirua ateratzeko norbaitek sortu dituela, orrela gure mendeko jende onak minberatuaz. Badakigu guk ere, gauzak laixter aztu-azitzeko modurik onena, dena ukatzea eta gaixtakeri ba-

tzuek besterik ez dirala esatea dala; biño au ez dago ongi inoren iritzian, eta gauzak zuzendu bearrean okertzeko modua da.

Beste munduko gauzik gertatu ez litekeala esatea, azkena bukatu den eunkiko gizon fedegabeak esaten zutena esatea da, eta ayen bide okerretik joatea. Guk, katolikoak geralako, ezin genezake ok dioten bezela esan, Jaungoikoak milagrorik ezin egin lezakela, zergatik ori ez da egia; ez eta ookin itz egin ere gure iritzira berak ekartzeko, beste munduko gauzik gertatu ezin ditekeala buruan sartua daukatelako. ¿Zer esan nai du onek? ¿ez dugula sartu nai guk gizon jakintsuak egin lezateken esamiñ zorrotz, kontuzko eta estu batean? Ez orixe; zergatik ori bera da guk desiatzen duguna. Guk nai duguna da, gauz oyetan zerbait jakin lezateken kontzientzi oneko gizon guziak ditezela, eta esamiñatu dezatela Lurdes-ko gertaeratan baden edo ez beste munduko eta Jaungoikoak bakarrik egin lezaken gauzik.

Bigarren jende moduak dira, gertaera oon gañean zer esan ez dakitenak, eta, asmo onakin, guk zer diogun jakin nai lutekenak.

Azkenekoak dira, gauz ok guziak onak eta Jaungoikoak egiten dituenak dirala diotenak, eta guk ere lenbailen ori bera esatea nai lute-

kenak. Badakigu ok jende onak dirala; eta guk esaten duguna, naiz ayek uste etzutena izan, ontzat artuko dutela.

Gaur bada, orrenbeste milla personen atsegiñerako, premi eta estutasun aundi batean gauzak garbitu ditezen, eta dudak kenduta egia jakin dedin, eskatzen digutena egitera goaz. Ziñ ziñetan desiatzen dugu, esamiñatu ditezela kontuz kristau guziaz, Ama Birjiñari eta Relijio osoari dagokizkion gertaera ok. Asmo onekin jartzen ditugu gure mendean gizon jakintsu batzuek, bildu eta esamiña ditzaten Lurdes-en gertatu diran eta denborakin gerta litezken gauza guziaz; orrela guk jakin dezagun ongi esan bear duguna. ●

Orrengatik bada,

Jaungoikoaren laguntza eskatuta ondoan, agindu dugu ta agintzen dugu emen jartzera goazen au :

Lenbiziko gauza: bildu ditezela gizon jakintsuak, esamiñatu dezaten Lurdes-ko urarekin iñor sendatu den edo ez; eta iñor sendatu bada, sendatze oyek milagrorik gabe gertatu diran edo ez. Bernardatxo Subiruk Ama Birjiña ikusi duen edo ez; eta ikusi badu, Jaungoikoak ortarako emantako laguntzik gabe ikusi zezakien edo ez. Ama Birjiñak Bernardatxori

ezer eskatu edo agindu dion edo ez; iñori esateko agindu dion eta nori. Orain Masabiell-ko arkaitzaren ondoan den iturria Ama Birjiña agertu biño len bazen edo ez.

Bigarren gauza: bildu bear duten jakintsu oyek, gauzak esamiñatuta ondoan, esan dezai gutela garbi ta itz gutxitan zer iruditzen za-yeten.

Irugarren gauza: jakintsu oyei lagundu dezayetela gure mendeko errietako parrokuak, ayen mendeko kristauen artean ezer gertatu bada gaztigatuaz, eta nork dakien zer eta nola gertatu den esanaz; emen bialdu bear ditugun jakintsuai nork bere jakinduriarekin lagundu lezayeken jarriaz; zeri medikuk Lurdes-ko urarekin sendatu diranen kontua izandu duten eskribituaz.

Laugarren gauza: gizon jakintsu oyek, berak nai duten guziaz galdetu lezayetekela nai duten guzia, galdetu bear dioten ari galdetu biño len juramentua eragiñaz. Gauzak gertatu diran lekuan bertan galdetu bear badira, jakintsu ootatik bi biñipiñ ara joan ditezela.

Bostgarren gauza: jakiñen gañean jartzen ditugu jakintsu ook, deitu bear dituztela beren artera beste edozein gauzetan jakintsuak

diran gizonak ere; orrela, guziak zer esaten duten adituaz, egia obeto jakin deiyen.

Seigarren gauza: bildu ditezela agindu dugun jakintsu ook izan bear dute gure Katedraleko Kabilduko bederatzi eliz-gizonak, gure bi seminarioetako agintariak, gure mendeko misioneruen agintaria, Lurdes-ko parrokoa eta gure seminarioetako maisuak.

Zazpigarren gauza: jakintsu oon presidentea izango da Nogaro jauna, kanonigo artziprestea; eta onen ordekoak, Tabaries eta Soulé, biak kanonigoak. Nonbratuko dira gañera sekretario bat eta aren ordeko bat.

Zortzigarren gauza: jakintsu ook beren lanak asi ditzate alik eta lenena; eta bilduko dira gomeni den guzian.

Tarbes-en emana, gure Obispo-etxean, gure firma eta selluarekin, eta sekretarioaren zuzen firmarekin, Uztaren ogei ta zortzian, milla ta zortzireun da berrogei ta emezortzigarren urtean.

† Bertrán Severo, *Tarbes-ko Obispoak*.  
Bere agindua egiñaz,  
Furkade, *kanonigo sekretarioak*.”

## BIGARREN IRAKURGAYAREN BIGARREN SALLA

*Gaixtoen alperrikako alegiñak Lurdes-ko gauzak aztu-azitzeagatik.*

Aitatu nuen lenago nola mutikoen batzuek ere asi ziran esaten, ayek ere Ama Birjiña ikusten zutela, eta ez dakit zer beste berriketa. Mutil ook atera zuten itxituraren barrenan sartzeko baimena're, eta egin zituzten an lotsagabekeri pranko, jendeak bedeinkatzeko ematen zizten gauzak ostuaz eta beste asko modutara. Arrazoyakin asi ziran guziak esaten, gobiernuko jaunen egitekoa zela au, onela Ama Birjiñaren gezurrezko agertzien bitartez, egiazkoak ere aztu-azitzeko.

Ez dakigu seguru zer gertatu zen; zergatik onelako gauzetan, egiten dituztenak izaten du-

te kontua jakin ez ditezen; biño nere ustez, arrazoi zuen jendeak. Nola nai dela're, etziztaizkan Lurdes-ko parrokuari're gauza ook asko gustatu; eta orregatik bota zituen bereala mutiko ayek elizatik kanpora.

Gauza ookin naspilla pranko sortu zen; eta Jakomet eta Massy jaunak, ezaguturik denbora ona zela au, kortean onelako gauzen kontua zuenari itz egiteko, bereala eskribitu zioten karta bana, gezurra pranko esanaz, gauzak ziran biño aundiagoak egiñaz, eta erakutsiaz egin zezaken gauzik onena zela bereala Obispo jaunari agintzea "debekatu zezala geyago Masabiell-ara joatea, iturri artako ura edatea, eta Lurdes-ko gauzen eta gertaeren gañean itz egitea". Etzegon gauza gaizki pensatua.

Rulan (Rouland) zeritzayon korte-gizon ark, naiz elizako gauzetarako fedegabea izan, sinistu zuen kartetan irakurri zuen guzia; eta eskribitu zion Obispo jaunari, kartetan irakurri zituen gezur guziak jarriaz, eta eskatuaz azkenean debekatu zitzala Masabiell-ko gauza guziak.

Au zen Rulanek nai zukeana, orrela beti Eliz Ama Santa azpiratua eta indarrrik gabe gelditu zeiyen; biño, naiz ministrua izan kortean eta ez alere umilla, etzuen nai zuena egin, ez ark eta ez Massyk eta Jakometek ere.

Lurdes-ko gauzen esamiñaren gañean bere ordena edo agintea emanta bereala, artu zuen Obispo jaunak ministroaren karta. ¿Zer pensatu ote zuen bere artean, ainbeste gezur eta lotsagabekeri ministro baten kartan irakurrita? Berealaxe erantzun zion Rulani, karta luze batean gauzak ziran bezela jarriaz, gezurrak egia-ekin ayenatuaz, eta ederki erakutsiaz nola (naiz ministrua izan), jendea ederki engañatzen sayatzen zen; zergatik etzen Laurenze jauna egia esateko beldurrik zuen gizona. Baita ere esaten zizkan Massy-k, Jakomet-ek, alkateak eta gañerako buruzariak Lurdes-en egin zituzten burutaziokeriak, eta nola jendea naiko minbertua zegoen; eta azkenean jartzen zion nola ark, askoren eskaerai begiratuaz, bere ordena eman zuen, eta ezin zezakeala eskatzen ziona egin. Ministroak etzion berriz eskribitu; ohea zen lenago're eskribitu ezpazuen.

Ekusirik gaiztoak, Obispo jaunak bildu zituena jakintsu ayek gauzak ontzat ematen bazituzten, galduak gelditzen zirala, bazter guzietan periodikuen bitartez izugarrizko eskamilla eta zalaparta ateratzen asi ziran. Eta ez bakarrik Lurdes aldean, baizik baita Parisen ere eta gañerako Frantziko ayeketan, eta Alemanian, Ingalaterran, Italian eta beste asko lekutan.



Egiten zutena zen, berebiziko gezurrak eta lotsagabekeriak esan, orrela Lurdes-ko gauzen sona gaiztoa egiaren fama biño lenago zabaldu zeiyen. Batez ere itz egiten zuten Laurenze Jaunaren eta berak bildu zituen jakintsuen kontra, zergatik laixter ezagutu zuten ayek ziralara ayen etsairik gogorrenak. Biño, periodiko on asko're egiaren alde atera ziran, gaiztoen periodikoakin Obispo jaunak Rulanen kartakin egin zuena egiñaz; eta etzen egiarentzat kalte aundirik izandu, zergatik eskamilla onen birtartez Lurdes-en gertatutako gauzen berri bestela biño askoz geyagok jakindu baitzuten.

Nola ayeka guzietan eskamilla aundia atera baitzen, jakindu zuen Napoleon irugarrenak, Frantziko Emperadoreak ere Lurdes-en zer gertatzen zen. Denbora ontan Biarritz-en bizi zen, uda parte zelako; eta egun batean joan ziran berarengana Arzobispo jaun bat eta lengo denboretan Diputadua izandu zen beste gizon bat. Entzun zituen oon aotik ere Lurdes-ko gertae-rak, eta baita ere zer lotsagabekeri egin zituzten jendearekin eta Masabiell-ko inguruan Massy, Jakomet eta ayen antzekoak; pranko aserretua ain gaizki portatu ziralako, berealaxe abisatu zion Massy-ri telegrafoz kendu-azi zitzala segituan Masabiell-ko esola, ol eta beste traba guziak.

Estu aski gelditu zen Massy jauna abisu au artu zuenean; zergatik, alde batetik Emperadorearen itzak zorrotzak ziran, eta beste aldetik aundia zen beraren arrokeria, eta beragatik baita jendeak parra egingo ziolako beldurra're. Etzekien zer egin; eta lenbiziko egunetan ixilik egondu zen, ezer agindu ezpazioten bezela. Biño jakindurik Emperadoreak Massy-k etzuela beraren agindua egin, birali zion beste abiso bat oraindik zorrotzagoa.

Orduan bai Massy-ri beldurra sartu zitzayola ezurretaraño; eta ekusirik, agintzen zitzayona egiten ezpazuen, agintaritzza eta berak zarkartzien pezetak galdu bear zituela, esan zion Jakomet-i "kendu zitzala Masabiell-ko soldadu ta xandarmak"; biño gañerako gauzak zeuden bezela utzi zituen, au guzia lotsa txikiagoa izan zeiyen egiñaz.

Gauzak onela ziardutela, etorri zen Lurdes-ara korteko gizon bat; eta Massy-k, guzia daldaizan gizon onek Enperadoreari Masabiell-ko itxitura lenago bezela zegola esango ziolako beldurraz, deitu zion alkateari eta agindu zion "kendu zitzala aguro aguro Masabiell-ko esola ta traba guziak". Orra bere burutazio lotsagabiengatik zenbat estutasun pasa zituen gizon fedegabe onek; orrelaxe gelditzen dira onelakoak, lengo bertsolariak ziona,

“merezitako paguak  
arrapatuta galduak”.

Alkateak bando bat eman zuen esanaz, kendo zuela Masabiell-ko itxitura, eta joan zitekeala nai zuen guzia errezatzeraz eta miñez zeudenentzat ura eramatera. Noizbait bearta bada, garbitu zuten Masabiell-ko bidea eta ingurua. Pensa zenbatekoa izango zen jendearen atsegiña.

Joan ziran, bandoa entzunta bereala, berebizikoak oraindik esolak kendu biño lenago Ama Birjiñari biotzez agur egitera, jarro eta beste ontzi asko ura eramateko eskuetan zeramazkitela. ¿Nork esan beren poz eta alaitasuna? ¿Nork, nolako debozioarekin errezatzen zuten Errosario santua? Arrazoi zuten.

## BIGARREN IRAKURGAYAREN IRUGARREN SALLA

*Obispo jaunak, jakintsuen iritzia adituta ondoan, Lurdes-ko gauzen gañean zer esan zuen.*

Gauzak obekiago jakin zitzaten beren begiakin ekusita, Obispo jaunak bildu zituen jakintsu ayek etorri ziran Lurdes-ara Azaroaren amazpian. Deitu zioten Bernardatxori; eta agindurik kontatu zezala Masabiellen gertatu zitzayon guzia, gezurrik gabe eta gauzak ziran biño larriagoak egin gabe, ark lenbiziko gertaeratik azkenekoetaraño dena kontatu zuen, emen jarri dudan eran.

Ainbeste gizonen artean bakarrik arkitu bazen ere, etzen batere izutu Bernardatxo; aundia zen denbora berean beraren arrokerigabetsuna're. Jakintsu ayek eskribitu zuten nexkak

esan zien guzia, eta gero joan ziran Masabiellara, beren begiak gertaera ayen lekua ekuster. Ekusi zituzten jendeak egin zituen bidet, iturria eta beraren inguruko lanak. Galdetu zioten inguruko jendeai, ia lenago iturrik bazen leku artan; iturri berri ura nola sortuzen, eta beste onelako asko galdera, beti dena eskribituaz.

Gero asi ziran, milagroaz sendatu ziran, eta beren mediku eta etxeko ta beste ezagunai deitzen, milagroak jakiteko. Agintzen zioten guziaz, juramentua lenbizi egiñaz, esan zezatela galdetzen zitzayetena garbi eta gezurrik gabe. Ekusten zuten zertan zegon ayek milagrotzat zeukaten sendatzea; esaten zuten gero ortarako eraman zituzten medikuak, milagrorik bazen edo ez sendatze artan; eta azkenean guzia eskribituta biraltzen zioten Obispo jaunari. Ontan pasa zituzten jakintsu ook illabete batzuek lana galanki egiñaz, gauzak erabakita garbitzen.

Eunka ziran, ziotenez, milagroazko sendatzeak; eta orrengatik etzuten guziak esamiñatzeko betarik, ez eta bearrik ere; zergatik aski zen bat edo beste Jaungoikoak ortarako bakarrik emantako laguntzaz egiña zela probatzea, an Ama Birjiñaren eskua zebillela jakiteko.

Iru mordoskatara berexi zituzten milagrozkotzatze ok. Lenbizikorako utzi zituzten, nola edo ala milagrorik gabe gertatu zitezkieanak; bigarrenerako, jakintsuen ustez milagrorik gabe ezin gertatu zitezkieanak; irugarrenerako, naita nai ez milagrozkot gertatu ziranak.

Sei izandu ziran lenbiziko mordoskarako; bederatzi, bigarrenerako; eta amabost, irugarrenerako. Arrituak gelditu ziran jakintsuak eta berekin eramane zituzten medikuak, zeñen aguro eta zeñen ongi sendatu ziran ekusiaz ainbeste persona, geyenak diru asko lenago medikuetan banatu zituztenak, eta ayentzat gizonen artean erremediorik etzela ongi zekiteanak; arriturik gelditu ziran, lenago urik etzen lekuan iturri berri aundi eta eder bat ekusirik, eta batez ere jakiñik ur ark berez etzuela ezer ere sendatzeko birtuterik, eta naiz edanta eta naiz berarekin garbituaz ainbeste lagun sendatu zituela. ¿Nork egin zitzakien gauza ook, Ama Birjiñak ezpada?

Ekusi eta irakurri zituen zentzutasun aundiarekin Obispo jaunak gauza ok guziak, eta egi egiaz ezagutu zuen, Jaungoikoak nai eta nai ez Ama Birjiñaren bitartez egin zituela. Alaz guziaz ere, gero denborarekin lotsarik etorri ez zezayon denak engañatu ziralako, beste iru ur-

tean ezer esan gabe itxedon zuen; eta bildurik berriz iru urteren buruan jakintsuak, eta eku-sirik etzela ezertxo're ayek lenbizi eskribitu zutenen kontra gertatu eta milagroak egiazkoak zirala, azkenean Obispo jaunak, Jaungoikoaren eta Eliza Ama Santaren izenean, eskribitu eta moldetegira eman zuen eskritura luze eta eder bat. Ara emen gauzik jakingarrienak :

“Beltran Sebero Laurenze, Jaungoikoaren errukiz eta Aita Santuaren aginduz Tarbes-ko Obispoak,

Bere mendeko eliz-gizon eta kristauai osasuna eta Jesukristoren bendizioa.

Denbora guzietan, nere laguntzalle eta anai biotzekoak, jardun dute zerutarrak lurrekoakin era miragarrian. Badakigu -nola munduaren asieran agertu zitzayen gure gurasoãt gure Jaun eta Jaungoikoa paradisuan, egin zuten pekatua-ren merezia emateko. Geroago itz egiten zien Patriarka eta Profetai, eta askotan Eskritura-ko libro santuak ez dute Jaungoikoa noiz eta nola agertu zitzayen besterik esaten.

Etziran aitu Lege zarrean Jaungoikoat gizonai egiten zizten mesede ook, bada Lege zarrean biño geyago egin dizte Lege berrian.

Elizaren lenbiziko urtietan, ainbeste milla ta

milloi martirik Jesukristorengatik beren bizia eman zuten denbora gogor ayetan, Jaungoikoa eta bere aingeruak askotan agertzen ziran, batzuetan tormentuetan zeudenak indartzeko, bestietan iltzen ziranak zerura eramateko eta gero gertatu bear zuten gauzak jakin-arazteko. Era artan Jaungoikoak maite zituen, mundu onetan iñork ekusi ezin zituenak.

Etziran zerutarren agertzeak oraindik ere bukatu; ala dio edozein lekutan istoriak.

Agertze ootatik geyenak, arrigarrienak eta mundutarrentzat obienak, Ama Birjiñarenak izandu dira. Zoazte kristauak bizi diran lekutara, eta non nai Ama Birjiñari konsagratutako elizak arkituko dituzute; eta eliz oyetatik geyenak, denboran batean leku artan zeruetako Erregiña agertu zelako egiñak dira. Badugu guk ere gure mendean eliz oyetatik bat, orain laureun urte ardi-zai zegon nexka bati Ama Birjiña agertu zitzayon lekuan egiña. ¿Nork esan zenbat milla persona sartzen diran urtearen buruan eliz artan?

Biño, eman zaizkagun Jaunari eskerrak, zergatik oraindaño egin dizkigun biño aundiagoko mesede bat egiten digu denbora ontan. Beste eliza bat emen gure artean eskatzen digu Jaungoikoak Ama Birjiñaren gloriarako. Eta



¿zeñen bitartez egiten digu Jaungoikoak mesede au? Munduaren iritzian personik ezerezenaren bitartez, Bernardatxo Subiru, amalau urteko Lurdes-ko nexka beartsu baten bitartez.”

(Emen jartzen ditu Obispo jaunak Ama Birjiñaren agertzeak; biño, ez dago lenago asieran ekusi duguna emen berriz ekusi bearrik, eta goazen aurrera.)

“Au kontatu du Bernardatxok bi aldiz, nik ontarako bildu ditudan jakintsuen aurrean.

Nexka onek dio bada *Pekatuaren kutsurik gabe sortua* izena duen emakume bat ekusi duela, eta emakume orrek itz egin diola; emakume ori bestek ez du ekusi, ez eta berak esan duena entzun ere; orrengatik beste mundukoren bat dirudi. ¿Zer esan bear dugu gauza oon gañean?

Badakizute, anai maiteak, Eliz Ama Santa kontuz ibiltzen dela onlako gertaeratan; eta seguru dagonean bakarrik esaten duela, Jaungoikoak egiten dituela eta ez deabruak. Jatorrizko pekatua ezkeroz, edozein engañatu liteke gauz ootan; zergatik gutxi gorabera onlako gauzak deabruak ere egin litzake. ¿Nork ez daki askotan zeruko en itxuran agertu dela Luzifer, orrela aixago jendea engañatzeagatik? Orrengatik esaten digu San Juan Ebanjelariak,

ez sinisteko nolana beste mundukoak esaten dizkiguten gauzak, aztarnatu gabe lenago nor esaten dizkigun.

Nik, anai maiteak, esamiñatu ditut Lurdesko gertaerak; badakit joan diran urte otan Masabiellen gertatu den guzia; eta ontarako bildu nituen jakintsuak ere dena esamiñatu dute. *Nik bada uste dut agertu den emakume ori, Ama Birjiña, Zeruetako Erregiña, dela.*

Bi eratakoak dira, sinisten duguna sinisteko ditugun arrazoyak; batzuek dira, Bernardatxok esan duenetik beren indarra dakartenak; besteak, gertatu diran milagrozkoko sendatzietatik sortzen diranak.

Ezin lezake inork esan Bernardatxok engañatzen gaituela, zergatik ortarako onegia da nexka ori. Beste guziak arrituak Lurdesko gertaeren gañean izketan badaude ere, ark (inork ezpadio ezer galdetzen) ez du itzik ere esaten. Zerbait galdetzen diotenean, ez du galdetzen diotena besterik erantzuten; eta au, garbi, izurik eta arrokeriaren antzik ere gabe. Galdera eta pruebatan estutu badute ere, ez da bein ere izutu; ez du beretzat ez dirurik eta ez beste eskañi zaizkan ezer ere artu. Aldi askotan eta era askotara galdetu badiote ere, beti gauzak berak eta modu berean esaten ditu. Ez dirudi

bada Bernardatxok gezurrik esaten duela; Relijioaren etsayak berak ala uste dute.

Biño esan lezake bat edo batek, Bernardatxok iñor engañatzen ezpadu're, bera engañatu litekeala; eta orduan gu ere, ark diona sinistuaz, berak engañatzen baginu bezela engañatzen gerala. Ez da orrelakorik ere; edozeñek ezagutu lezake Bernardatxok esatuen gauzeta-tik, nexka onen burua ez dagola nastua eta ongi pensatzen duela. Ez begietan, ez belarrietan eta ez beste sentiduetan, ez du okerrik. Gañera errespetu aundia die Elizako ta Relijioaren gauzai; ez dago beraz Bernardatxo orrelako gauzak sortzeko. Ama Birjiña ekusi du emezortzi aldiz; lenbizikoan, ark gutxiena uste zuenean; eta bi aldiz, ark ekusi nai bazuen ere etzuen ekusi, agertu etzitzayolako. Ama Birjiña agertzen zitzayonean, arpegiko kolorea mudatzen zitzayon; leku batera begiratzen zuen eta gañerakoan biño zorrotzago; lenago ekusten etzuen zerbait ekusten zuen, lenago aditu etzuen zerbait aditzen zuen; ez da beraz Bernardatxo're engañatzen.

Bernardatxok esan duena sinisgarriagoa egi-ten da milagroakin. Sagar bat indarrean dagon edo ez ematen duenetik ezagutzen den bezela, guk ere esan genezake egia dela Bernardatxok

diona, zergatik ona da ark esaten duenetik sortu dena, da esatea gertatu diran milagroak egiazkoak dira.

Masabiellen Ama Birjiña agertu bezin laister, zabaldu zen berri au bazter guzietara; eta bereala eunka ta millaka personak, beren etxeak eta zelayak utzirik, bildu ziran arkaitz bedein-katuaren aurrean. Belaunikatzen ziran guziak, eta Bernardatxok begiak ekusten zuena, fedarekin ekusirik, guziak beti Ama Birjiñari errezatzen zioten.

Ama Birjiña ez da orain agertzen, biño ez da Masabiellen jendea gutxitu. Berebizikoak datoz, nola aldetik ala urrutitik; an biltzen dira zarrak eta gazteak, beartsuak eta aberatsak, gizasemeak eta emakumeak. ¿Zer dakartzi onenbeste lagun arkaitz onen aurrera? ¡A, fede bizi batek! Ama Birjiñari bere laguntza eskatzera datoz guziak. Aski da bein bakarrean ook leku artan errezatzen ekustea, an beste mundukoren bat badela sinisteko. Kristau onen fedea pizkortu da; oztuak zeudenak Relijioko gauzetan, berotu dira; pekatu zarretan bizi ziradenak, Ama Birjiña Lurdes-koaren bitartez atera dira pekatuaren leizetik. ¿Nork egin litzake gauza ook guziak, Jaungoikoak ezpada? Orduan, egia da Ama Birjiña Lurdes-en agertu dela.

Gorputzeko osasunari dagokizkion milagroetara bagoaz berriz ¿zer esango dugu?”

(Emen jartzen du Obispo jaunak iturri berria nola sortu zen; ez dago berriz esan bearrik.)

“Joan ziran iturrira miñez zeuden asko, eta ez alperrik; bada geyenak txarraldi guzietatik sendatu ziran. Zabaldu zen sendatze oon berria alderdi guzietara, eta urruti bizi ziralako eriak ezin eraman zituztenak Lurdes-ara, iturriko ur santua eskatzen zuten. ¿Zenbat famili poz eta atsegiñaz bete ote ziran! Galdetuko bagenie berai, zer deritzaten Lurdes-ko uraren gañean, ja, zeñen aguro esango luteken, Jaungoikoak ur ari edozein bearrez bat-batetan sendatzeko birtutea eman diola!

Ezin genitzake kontatu milagro guziak; biño bai esan bear dugu, Lurdes-ko urak asko eta asko eri, medikuak erremedio gabe utziak, miñaren arrastorik utzi gabe sendatu dituela. Ur orrek ez du berez, jakintsuak diotenez, sendatzeko kalidaderik; asko sendatu dira bat-batetan; beste asko pixkaban pixkaban; asko sendatu dira edanta; beste asko garbituta. Gañera sendatze ook seguruak dira. ¿Zer gertatzen da bada emen? ¿Nork sendatzen du jendea?

Gertatzen diran sendatze ok, beste munduko emakume orren agertzea ezkeroz eta bera birtarteko dela gertatu dira; orduan emakume orri zerukoa da; zerutik datozenak ez dute gezurrik esaten, eta emakume orrek esan du, Ama Birjiña dela; orduan bera da. Esan dezagun beraz guziok atsegín aundiarekin: *Digitus Dei est hic!* ¡Jaungoikoak egin ditu Lurdes-en gertatu diran gauzak!

¿Nork ez du ekusten gertaera ook guzietan Jaungoikoa dabillela? Milla ta zortzireun da berrogei ta amalaugarren urtean jarri zuen Aita Santu Pio bederatzigarrenak fedeko gauzen artean, Ama Birjiñak jatorrizko pekatu izanduetzuela; eta andik lau urte biño lenago Ama Birjiñak berak agertuta esan zuen; *Ni naz jatorrizko pekatu gabe sortua*. Jaungoikuak gertaera onekin Pio Santuak egin zuena ontzat eman nai izandu zuela dirudi.

Eta ¿non dago Ama Birjiña eskatzen duen eliz orren leku ori? Emen, gure mendien artean, orrenbeste jende alde guzietatik biltzen den leku ontan. ¿Ez du onek esan nai, Ama Birjiñak bere aurrean jende asko ekusi nai duela?

¡Lurdes-tarrak, poztu zaitezte! Or, zuen artean zeruko Erregiñak bere oñak jarri ditu;

or, zuen artean eliz aundi bat ekusi nai du, guziaz ezin kontatu ala mesede egiteko. Eman zaizkazute berari eskerrak; eta ark zuen Ama izan nai duen ezkerro, izan zaitezte zuek beraren seme leyalak. Ezagutu dugu, Ama Birjiñak gorputzak bezela animak ere sendatzen eta aberasten dizkizutela; bada aundia izandu da zuen fedea eta ustea. Kontentu gaude, gobiernuko agintarien kontra altxa gabe pakean egondu zeraztelako ere.

Zabaldu zazute zeren biotza, beste gañerako gure mendeko kristau guziaz ere, bada zuentzat ere zorientasun berri bat astera dijoa; zuek ere Ama Birjiñaren mesedeak artu bear dituzute; eskatu emendik aurrera Ama Birjiña Lurdes-koari zeren beartasunetarako laguntza. Guziaz Ama Birjiñaren mantupean gaude; mantu onen azpitik ateratzen ezpagera, guretzat da zerua.

Orain bada,  
gure eliz-gizon, kanonigo eta Katedraleko  
Kabildoarekin itz eginta,

Jaungoikoaren laguntza eskatuta ondoan,  
gauz ootarako Aita Santu Benedikto ama-  
laugarrenak eskribitu zuena irakurritakoan,  
ekusirik jakintsuak ontzat eman dituztela  
Lurdes-ko gertaerak,

irakurririk medikuak sendatzien gañean eskribitu dutena,

konsideraturik Lurdes-en nai eta nai ez beste munduko norbait azaldu dela,

konsideraturik Lurdes-en agertu den persona ori Jaungoikoaren partetik datorrela,

konsideraturik Lurdes-ara datozen jende guziak guk uste duguna uste dutela,

gure iritzia eskatu duten orrenbeste jenderi merezi duten bezela atsegin emateagatik,

beste Obispo eta persona sonatu askok ere au bera eskatu digutelako,

Espiritu Santuaren argitasuna eta Ama Birjiñaren laguntza eskatuta ondoan,

*Esan dut eta esaten dut*

Maria, jatorrizko pekaturik gabe sortua, Jaungoikoaren Ama, agertu zayola Bernardatxo Subiru-ri milla ta zortzireun da berrogei ta emezortzigarren urteko otsaillaren amaikan eta urrengo egunetan emezortzi bider, Masabiell-ko arkaitzean, Lurdes-ko ondoan; Ama Birjiñaren agertze au egiazkoa dela, eta ongi egi-ten dutela kristauak ala dela sinistean. Alaz guziaz ere, Aita Santuak besterik esango baluke, au guzia gezurtzat ematen dudala.

Gure mendeko elizetan Ama Birjiña Lurdes-



-koari eliz-jayak egin litzaizkekela; biño nere baimenik gábe ezin litekeala zabaldu ez librorik, ez oraziorik eta ez beste gauzik Ama Birjiña Lurdes-koaren gañean.

Ama Birjiñak eskatzen duen eran, eliza bat Masabiell-ko arkaitzean egin nai dugula. Eliza egin bear den lekua nola aldapa aundikoa eta txarra baiten, eliz au asko kostako da; eta orrengatik eskatzen diogu gure mendeko eliz-gizon eta beste kristau guziaz eta Frantziko eta Ama Birjiña maite duten leku guzietako jendeai, al dutenakin lagundu dezaigutela.

Gure aginte edo ordena au irakurriko da artzen den egunetik lenbiziko igandean, gure mendeko eliza, kapilla, seminario, kolejio eta ospital guzietan.

Tarbes-en emana, gure obispo-etxean, nere firma ta selluarekin eta sekretarioaren firmarekin, milla ta zortzireun da irurogeita bigarren urteko ilbeltzaren emezortzian.

† Bertran Sebero, *Tarbes-ko Obispoak*.  
Eta beraren aginduz  
Furkade (Fourkade) *kanonigo-sekretarioak*.

## BIGARREN IRAKURGAYAREN LAUGARREN SALLA

*Masabiell-ko obrak eta mudantzak; Peyramale  
eta Bernardatxoren gañean azkeneko  
aldiz itz bi.*

¿Nork esan zenbatekoa izandu zen jendearen poza ta atsegiña, Obispo jaunaren itzak ba-koitzak bere erriko pulpilotik entzun zitue-nean? Etxean eta kanpoan, plazan eta men-dian etzen besteren gañean itz egiten.

Obispo jaunak erosi zituen Elizaren izenean Masabiell-ko arkaitza ta inguruko lurak; eman zuen kortean gauz oon kontua zuen gi-zon ark ere, eliza egiteko bere baimena, eta berealaxe ekin zion jendeak lanari.

Lurdes-ko inguruak amar amabi urtean lengo

antz guzia galdu zuten, edertasun eta debo-  
ziozko jantzi berri bat jantziaz. ¿Nork esan  
zer den orain Lurdes, zenbat lan egin den, zen-  
bat limosna jendeak eman duen, zenbat negar-  
-malko Ama Birjiñaren aurrean ixuri diran, zen-  
bat milagro egin diran? Nik ez dut ontarako  
itzik, ez eta bestek ere. Lenago auntsak eta  
pixtiak besterik ibiltzen etziran lekuan, bi eli-  
za, bat bestearen gañean egiñak daude, oso  
ederrak eta ikusgarriak. Ama Birjiña agertu  
zen lekuan, bera ańeko eta beraren antzik aun-  
dieneko imajiñ bat jarria dago; geroxeago esan-  
go dut nola jarri zuten. Aurrean burni-maki-  
llazko itxitura bat egin diote, jendea geyegi al-  
deratu ez deiyen. Ama Birjiñaren aurrean urrez-  
ko lanpara bat jarri zuten; eta aldamenean,  
muleta, bakulu edo urgunen makillak eta bes-  
te orrelako gauzak eunka ta millaka daude.

Iturriko ura kańu aundi batzuetatik atera-  
tzen da itxituraren bazterrean; gańera alde al-  
dean egin zuten etxe txiki bat, gaizki daude-  
nak an ińork ekusi gabe urean garbitu dite-  
zen. Errekako ura alde batera botata, jendea  
ibiltzeko zabaldoi aundi bat antolatu zuten,  
zumar eder eta lertxunak or emen sarturik. Ka-  
mio eta bide zabal eta egokiak alde guzietan;  
loretegi ikusgarriak non nai; etxe berriak baz-  
ter guzietan; itz batean, Lurdes-ek ez dirudi

lengoa; Lurdes zeruaren iduri txiki bat da, batez ere debozioak daramazkien jendez dena betetzen denean.

Eta au guzia jendeak Ama Birjiñaren amorioz eman duen diruarekin egin da, eta egunero geyago eta geyago egiten da; urte gutxian bi milloi pezeta biño geyago kastatu ziran; ¿nork daki onezkero zenbat eman den, eta inguru ayek Ama Birjiñaren onran edertzeko zenbat sartu den?

Gauza ook guziak bere iritzira zuzentzen zituena eta guzien gidaria ta kontuduna, Ama Birjiñak berak ontarako autu zuen gizon sonaturaren zen, Lurdes-ko Parrokua. Ezagutu zuen ezkeroz Jaungoikoak zer eskatzen zion, etzion bere buruari zeruetako Erregiñarentzat gauza ayek guziak egin artean pakean utzi. Egun guzian lanean, egun guzian guzien aurrean, egun guzian gauza berriak pensatzen; egundano aspertzen eta nekatzen etzela zirudien. “¿Noiz ekusiko ote ditut —esaten zuen bere artean—, noiz ekusiko ote ditut lan ook guziak bukatuak? ¿Orduantxe bai nere anima Jaungoikoari pozez emango diodala! ¿Orduantxe bai Ebanjelioko Simeonekin batean *nunc dimittis* esanaz, nere begiak pozez betiko itxiko ditudala!”

Ēta ¿zer egiten zuen denbora artan Bernar-datxok? Lenago bezin beartsu, Bernardatxok etxean ziarduen, urtietan bezela animako gauzetan ere aurreratuz. Masabiell aldean jenderik gutxiena zebillen denboran, antxe joaten zen ixil ixilik Ama Birjiña ainbeste aldiz agertu zitzaion lekura errezatzera; inork ez ekustea, inork ez artzaz galdetzea nai zuen; eta au da aren anima aberasten zijoalako siñalerik onena. Gauza bat bakarrik desiatzen zuen Parroko jaunak bezela, Eliz Ama Santak Ama Birjiñaren izenean, prozesio edo beste puntzioren baten bitartez, obra berrien jabe egin bear zuen eguna. Jendeak lana egin zuen, eta noizbait bear ta etorri zen egun au're.

Milla ta zortzireun da irurogei ta laugarren urteko apirillaren laua zen, Ama Birjiñaren agertzetik sei urtera. Egualdia ederra zegon; alde guzietatik jendea zetorren; kanpana guziak Lurdes-en jiraka zebiltzan; torreak banderaz edertuak, balkoi guziak jantziak zeuden; zerua lurrera etorri zela zirudien.

Atera zen jendea prozesioan erriko eliza aunditik. Biño ¿zenbat ziran? ¿lau milla, amar milla, amabost milla? Oraindik geyago. ¿Ogei milla, ogei ta amar milla, berrogei milla? Oraindik ere geyago; iya irurogei milla.

Aurrean, zaldizko gerra-gizonak ederki jantziak zijoazten; oyen ondoren, jendea bi endanetan noizean bein kantatuaz; gero, asko relijioso eta relijiosa; azkenean, Obispo jauna, bere Katedraleko kanonigoz eta laureun apaizez inguratua, guziak aldarerako bezela jantziak. ¿Zer izango zen ainbeste jende, ainbesteko debozioarekin egun eder artan ekustea, pensatze utsarekin negar malkoak begietara badatoz orain? Masabiellara joan ziran; arroka santu ayek bedeinkatu zituzten, baita Ama Birjiñaren marmol txurizko imajiñ eder bat bera agertu zen lekuan jarri're.

Eta ¿zer zioten Bernardatxok eta Parrokoak? Parrokua ta Bernardatxo etzijoazten prozesioan; etzituzten aditu predikadoreak egun artan ayen gañean esan zituzten itz ederrak; Parroko jauna ta Bernardatxo oyea zeuden biak miñez. Nola nexka ta beraren etxeakoak oso beartsuak baitziran, eta egundaño ardit bat artu nai izandu ezpaizuten iñorengandik, Bernardatxok ospitalera joan bear izandu zuen, eta an egondu zen puskatxo batean.

Sendatu ziran biak, eta Parroko jaunak Masabiell-ko obretan lenago bezela jardun zuen. Bernardatxok etzuen geyago Ama Birjiña ekusi, eta bere etxean bizitu zen bere gurasoekin

batean oraindik urte batzuetan. Aundia izandu zen Ama Birjiñak bere animaren gauzetarako eman zion argitasuna; aspertua zegon munduan eta munduko bizi-moduaz, batez ere jendeak bein ere pakean uzten etziolako Masabiell-ko gauzen gañean galdeka. Ixil ixilik Jaungoikoaren serbizioan bizitzeko zalea zekukan, eta ala, Karidadeko monjetan sartu zen. ¡Zorioneko emakumea! Oraindik ezta urte asko il zela, iñolaz ere zeruan goi askora joateko.

## IRUGARREN IRAKURGAYAREN LENBIZIKO SALLA

### *Ama Birjiñaren koronazioa*

Lau gauza gelditzen dira emendik aurrera-koetan jakingarrienak, eta oyekin egingo dut irugarren eta azkeneko irakurgai au; dira, Ama Birjiñaren koronazioa, peregrinazioak, medikuen billera eta milagroak. Asi gaitezen lenbizikotik.

¡Ama Birjiñaren koronazioa! ¡Ai, zeñen egun gogoangarria den Frantzi guzian eta batez ere Lurdes-en Ama Birjiñaren koronazioko eguna! Gauzak aurretik ederki prestatuak zuden, eta mundu guzia Lurdes-ara begira bezela zegon. Astelena zen, milla zortzireun da irurogei ta amaseigarrengo uztaren irugarrena;



goiz artan bertan, lenago etorri ziranaz gañera, amazapi peregrinazio aundi allegatu ziran.

Atera zen bada jendea Obispo-etxetik Masabiell aldera; an musika-soñurik ederrenak; an Ama Birjiñari biotz biotzetikako kantaerak. Bazijoan, bazijoan jendea; ibiño mundu guzia Lurdes-en zela zirudien, ain luzea zen prozesioa. Masabiell-en bideak, soroak, zelayak, mendiak, dena bete zuten.

Bere denboran asi zen meza nagusia, pontifikala deritzayona, beste askoren artean iru milla apaizek kantatzen zutela. ¡A, zeñen gauza ikusgarria izango zen ura! Eliza, mundu guzia; eliz-gaña, zerua; aldarea, kanpoan; pekatuen barkamenerako eskaintzen den Sakrifizioa, zeru-lurren artean; eguzkia, odehyak, basoetako txoriak, eta lurreko pixtiak meza entzuten.

Biño goazen koronaziora. Ama Birjiñaren estatua edo iduri berri bat jarria zegon ordurako bere lekuan; guziak ixil ixilik begira zeuden. Altxaturik bada Meglia jauna, zeña Aita Santuak biraldu baitzuen ontarako bere lekuan eta izenean, artzen du bere eskuetan koroya eta jartzen dio buruan Ama Birjiñari. ¿Nork esan zer pasa zen orduan inguru artan? Orduan musikak, orduan kantuak, orduan guzien eju

eta deadarrak betē zituzten bat-batetan zeru-  
-lurrak. Biño etzen au bakarrik: bada denbora  
berean, errekarren beste aldean trena bat azaldu  
zen guzien aurrean, dena peregrinoz betea.  
¡Ayek deadarrak eta keñuak pañueluakin!  
¡Ura jendearen atsegiña alde batetik eta bes-  
tetik! ¡A nolako begiakin ekusiko zituen Ama  
Birjiñak gauza ook zerutik, baldin eta zeruan  
bazegon, eta ez lurrean bere irudiaren ingu-  
ruan! ¡Zer graziak eta mesedeak ixuriko zi-  
tuen guzien biotzetan egun artan! Atsegin  
dugu, Ama maitea, atsegin dugu guziak zure  
atsegiñaz; eta emendik egiten dugu desioaren  
bitartez an izandu bagiña guk ere egingo ge-  
nuena; zuk ere arren egin zazu gugatik orain  
gure animetan an izandu bagiña egingo ze-  
nuena.

Eun milla izandu ziran bildu ziran personak;  
ogei ta amabost, Arzobispo, Obispo eta gañe-  
rako eliz-nagusiak; iru milla apaizak. Koroya  
urrezkoa da, arri baliosoz edertua; ogei ta bost  
milla pezeta balio ditu.

## IRUGARREN IRAKURGAYAREN BIGARREN SALLA

### *Peregrinazioak*

Peregrinazioak beren asiera Ama Birjiñaren agertzeakin batean izandu zuten, bada berealaxe asi zen jendea biltzen batetik eta bestetik; eta Lurdes-ko gertaeren sona zabaltzen zen adiñean joan ziran peregrinazioak ere geitzen eta azitzen. Lenbizi inguruko jendea bakarrik joaten zen, egunsentian aterata eguartian beren errezuak Ama Birjiñari egiteko: gero pixkaban pixkaban Departamentu guzitik etortzen asi ziran; azkenean Frantzi guzitik eta munduaren alderdirik banatuenetatik.

Batzuetan gizasemeak bakarrik biltzen dira; bestietan, edozein klasetako jendeak. Jende geyago bildu deiyen eta beartsuak ere joan dite-

zen, peregrinazioa giatzen dutenak trena bat edo beste beren kontura artzen dituzte, eta orrela billeteak bestela biño merkeago ateratzen dira.

Frantzian urtero peregrinazio bat, *nazionala* deritzayona, egiten da nazio guziaren izenean. Ara nola izandu zuen peregrinazio onek bere asiera.

Milla zortzireun da irurogei ta amaikagarren urtean, joan ziran egun batean beste askoren artean bi apaiz Lurdes-ara; eta orazioan zeudela elizan, bati burura etorri zitzayon "Frantzi guziarentzat eta frantsez guzientzat gauza oso probetxugarria izango zela, nazio guziaren izenean Lurdes-ara peregrinazio bat egitea". Galdetu zion bere lagunari zer zirudien; eta onek ere gauza ona izango litzakiela esan zuen.

Esan ta egin: badijoaz beren parajera; itz egiten dute batekin eta besteekin; Obispo jaunak, Aita Santuak eta guziak ontzat ematen dute, eta bear zena prestatzen asten dira.

Eun milla persona bildu ziran urte beraren Agor-illean, zortzi Obispo eta bi milla apaizekin. ¡Egun gogoangarriak, an irago zituzten sei egunak! ¡Zenbat deboziozko negar-malko gozo ixuri ziran egun ayetan! Obispo jaunak,

asko apaiz eta relijiosok predikatu zuten, jendea penitentzira deituaz; eta jendeak ere sermoyak ongi entzuntako siñaleak eman zituen. Deadarka guziak errezatzen zuten, nork Frantziarentzat laguntza, besteak berentarren baten osasuna, beste batzuek norbaiten konbersioa, eta guziak beren pekatuen barkazioa eskatuaz.

Kandelak piztuta prozesio eder bat egin zuten illunabar batean, debozioz errezatuaz; kon-sagratu zioten Frantzi guzia Ama Birjiñari, onela bakoitza bere etxera biurtuaz.

Biño etziran joan, milagro asko beren begiak-kin ekusi gabe; oi duen bezela, Ama Birjiñak aren onrarako egin zutena, ongi pagatua utzi nai izandu zien. ¡A, nola sendotu ta pizkortzen den fedea onelako lekuetan! ¡An bai jendeak Ama Birjiñarekin bere amarekin bezela itz egi-ten duela! ¡An bai gizonak zuzenbidera aixa biurtzen dirala! Eta ¿nola ez? ¿ez ditu an Jaungoikoak bere graziaren laguntzak anime-tan, Mayatzean eudi gozoa zelayetan bezela, ixurtzen?

Peregrinazio nazionala au Abuztuan egiten da, eta guztiz sonatua da leku guzietan; miñez daudenak trena batean aparte eramaten dituzte.

Alaz guziaz ere, peregrinaziorik ederrenak

Beljika-tik datozenak izaten dira. Ez da iñon, ez eta Frantzian bertan ere, Ama Birjiña Lurdeskoarengana, Beljikan adiña jayera edo debozio sentitzen.

Ama Birjiña Lurdeskoaren izenean egin dituzten ermitak, parrokiak berak biño geyago dira Beljikan; eta Ama Birjiña're ez da ango jendearen debozioa ermit ayetan ordaindu gabe gelditzen, gero ekusiko dugun bezela.

Badituzte billerak Ama Birjiña Lurdeskoaren izenarekin, baita Lurdes-ko gauzen gañean noizean bein argitaratzen duten boletin edo liburu txiki bat ere. Gañera, ango ermitetara maiz aski egiten dituzten peregrinazioakin ez kontentaturik, urtero lau bider Lurdes-ara etortzen dira, naiz Lurdes andik berreun leguara egon; eta au da gauzikan ekusgarriena, bada aundiak dira peregrinazio ootarako egiten dituzten prestaera ta lanak.

Miñez daudenak ekartzeko trena berri bat egin zuten; eta trena au bere egokitasunez ootarako, estranjerian premiatu dute. Trenean ospitala jarri zuten, miñez daudenentzat bear diran gauza guziakin; bertan botika, bertan medikuak, bertan apaizak okerragotzen diranai laguntzeko, eta bertan aldarea eguneroko me-

zakin; eta miñez daudenak beren oyetik meza entzuten dute.

Lurdes-ara egiten diran peregrinazioak, egunean biño egunean ugariagoak dira; milla zortzireun da larogei ta zortzigarren urtean, eun da berrogei peregrinazio egin ziran; milla zortzireun da larogei ta amaseigarrenean, berreun da ogei ta bost.

Modu berean komunioak ere joan dira geitzen: milla zortzireun da larogei ta zortzigarren urtean berreun da ogei ta amar milla izandu ziran; milla zortzireun da larogei ta amaseigarrenean, lareun milla. Sendatzeak ere geitu dira; milla zortzireun da larogei ta zortzigarren urteko peregrinazio nazionalean, ogei ta amar bat milagrozt sendatu ziran; milla zortzireun da larogei ta amaseigarrengeko urtekoan, larogei ta emezortzi.

## IRUGARREN IRAKURGAYAREN IRUGARREN SALLA

### *Lurdes-ko medikuen billeraren gañean*

Ekusirik Ama Birjiñaren agertzietatik laixter Tarbes-ko Obispo jaunak, Lurdes-en peregrinazioetan jende asko biltzen zela konfesatzeko ta komulgatzeko asmoarekin, eta Lurdes-ko apaizak gutxi zirala ainbeste lagunentzat alako denboretan; bere kontuko egiteko oni zuzenbidea emateko, Lurdes-en apaiz batzuek beren legeakin jartzea pensatu zuen, Masabiell-ara zijoan jendearentzat.

Ama Birjiñaren eta Relijioaren onrarako, apaiz ootatik bi milagrorik sonatuenak eskribitzen asi ziran, eta ayek bete zituzten Lurdes-ko gertaeren gañean an bertan eskribitzen den istoriaren lenbiziko ogei libruak. Mediko batek



edo bestek zeukaten Lurdes-ara zijoazen erien kontua, eta ayek milagroak ere esamiñatzen zituzten.

Biño geroago, ekusirik mediku ook bear adiña etzirala eta istoria're ayek eskribitzea ohea zela, bi gauza ootarako, apaizenaren antzera, medikuentzat ere billera bat egin zuten; onela apaizen eta medikuen artean milagroak esamiñatzeko tribunal eder bat osatzen zutela.

San Maclú (St.-Maclou) zeritzayon bat izandu zen billera au jarri ta zazpi urtean giatu zuena. Beti bertan bizi diran medikuak ez dira asko; biño, nola kanpotik joaten diran guziak esamiñetan parte artu bai lezateken, ez dira ok jostaketako gauzak izaten.

An juntatzen dira onak eta gaixtoak, kristauak eta jentillak, katolikoak eta erejeak; eta denak nai duten guzia, eta nai duten bezela ekusi eta esan lezateke; an bakar bakarrik, jakinduririk eta arrazoirik gabe itz egitea galarazten da.

Orrengatik dira Lurdes-ko milagroak, jentillentzat gauzarik arrigarrienak, erejientzat miñik geyena ematen dienak, eta katolikoentzat egiazko garaitzeak eta onrak; bada Lurdes-en, gaixtoak eta fedegabeak nai duten guzia Reli-

jioaren kontra esaten dutelarik eta nai dituzten difikultade guziak milagroak ukatzeko jartzen dituztelarik, alaz guziaz ere eunka milagroak urtero ontzat ematen dira.

Milla zortzireun da larogei ta amabigarren urtean, eun da ogei mediku exeri ziran milagroak juzgatzeko tribunalean; milla zortzireun da larogei ta amazpigarrenean, berreun da ogei; andik urte ta erdira irureunetaraño allegatu ziran.

Medikuen billerak lenbiziko zazpi urtietan berrogei ta amar bat milagro ontzat eman eta eskribitu zituen urte bakoitzean; eun, milla zortzireun da larogei ta amabigarrenean; berreun da ogei ta amar, andik bost urtera.

Orain Apirillaren amabostetik Burubillaren amabost artean juntatzen dira medikuak, egu-nero sei ordu lanean iragoaz; asko milla milagro ontzat eman dituzte, eta millaka ta millaka dituzte esamiñaren zai daudenak ere.

## IRUGARREN IRAKURGAYAREN LAUGARREN SALLA

### *Lurdes-ko milagroen gañean*

Oraintxe bai ez dakidala ez nondik asi, ez nola segitu eta ez nola bukatu; iñondik sartu-aterarik ez duen txara baten bazterrean bezela arkitzen naz.

Milagro asko zertarako ekarririk nola ezpaiten, saill ontan Jaun Sakramentatuaren aurrean egin diran batzuek jarriko ditut, urren-goan bestela gertatu diranetatik geyena gustatu zaizkidanak jartzeko.

Oraindik agian etzenuten adituko Lurdes-en Jaun Sakramentatuaren aurrean egiten diran milagroen gañean itz egiten; biño, orain Lur-

des-en gertatzen diran milagrorik sonatuenak, onela gertatzen dira.

An izandu diranak dakiten bezela, eliza ez dago Ama Birjiña agertu zen lekuan bertan, baizik pixka bat goixego arkaitzaren gañean; eta ala, puntzio batzuetarako, Ama Birjiña agertu zen lekura Jaun Sakramentatua elizatik prozesioan eramaten dute.

Egun batean bada, milla zortzireun da larogei ta zortzigarren urtean, Jaun Sakramentatua iragotzen zen denboran, erietatik batzuek bat-batetan sendatu ziran. Andik aurrera asi ziran miñez zeudenak Jauna zetorrenerako biltzen, eta konfiantza ta fedea pizkortuaz prestatzen.

Iya igandeero arratsaldietan Ama Birjiña agertu zen lekura jexten dute Jauna, eta geyenean milagroren bat edo batzuek gertatzen dira. ¡Orra Lurdes-en Jaun Sakramentatuaren aurrean Mariaren bitartez egiten diran milagro sonatuen asiera!

Jaunaren aurrean egiten diran milagroak ere geitzen joan dira, eta bestela egiten diranak biño geyago; bada gure denboretan, Jaun Sakramentatuaren aurrean egiten diranak, bestela egiten diranak adiña badira.

Dirudienez, gutxi dira Jaun Sakramentatuaren aurrean sendatzen asita, gero iturri santuan oso sendatzen diranak; biño, asko, iturrian asita Jaunaren aurrean oso sendatzen diranak. Ama Birjiñak milagroen onra bere Seme onari eman nai diola dirudi, munduan geyago ezagutua ta maitatua izan deiyen. Zergatik ¿nork esan onelako gauzekin zenbat pizkortzen den fedea Jaun Sakramentatuagan? Bada Sakramentuan ezpalego, ez litzake milagrorik gertatuko; eta auda guk gure animen onerako atera bear dugun probetxua're.

Maria Luisa Oró (Horeau) zeritzayon neskatx bat itxua zen; eguna edo gaba zen ere ezagutzen etzuen. Joan zen Lurdes-ara Ama Birjiñari begietako argia eskatzera; eta aditurik Jaunarekin prozesioan zetozela, jartzen da belauniko eta esaten dio Jesusi, Ebanjelioko itxuak bezela: "Jauna, nai baduzu, senda nazazuke; eman zadazu nere begietako argia". Eta eskatu bezin laixter, egundaño ezer izandu ezpalu bezela ekusten zuen.

\* \* \*

Fak esaten zioten emakume batek bost urte zeramazkien oso gogortua zegola, eta iya beste mundurako bidean sartzera zijoan. Eramaten

dute Lurdes-ara; sartzen dute iturriko urean, eta kontua joaten zayo; ateratzen dute, eta ekusirik agonian zegola, beraren anima Jaunari enkomendatzen asten dira. Aditzen dute ontan Jaunaren prozesioko txintxerri-soñua; ateratzen dute besoetan illik edo bizirik zegon emakume una Jaunaren bistara; etortzen da ayetaraño Jauna; zutitzen da orduan bat-batean iya illean zegola uste zutena, eta oñutsik bestiekin batean segitu zion prozesioan Jaunari. Oso sendatua zegon!...

\* \* \*

Amabi urteko mutiko bat ziar etzanean zegon bide bazterrean, prozesioan Jauna zeramaten egun batean. Erdi elbarria zen, eta gañera beti zikinkeria zerion zauri aundi bat zuen ez dakit non; zutik oraindik etzekien, zutik ibiltzeko gauza etzelako. Prozesioan jendea zijoala bada, nola mutikoaren bazterretik iragotzen baitzen apaiza jauna Jauna Sakramentatuarekin, eltzen dio apaizari soñekotik eta esaten dio: "Ni Jaunak sendatzen nauen artean, ez diot utziko aurrera joaten". Andik iru edo lau minutura oso sendatua zegon, eta jendeak pozez besoetan prozesioan eraman zuen. Etzitzayon zauriaren arrastorik ere gelditu.

\* \* \*

Margarita Saboya, ogei ta bost urteko neskatx batek, sei urte zeramazkien miñez; etzuen ezer ere jaten, salda-gauza ta edariakin bakarririk bizi zen. Eraman zuten Lurdes-ara; biño etzen iñor atrebitzen iturriko urean bera sartzera, eskuetan ilko zitzayelako beldurrez. Etortzen da Jauna prozesioan Margarita-ren ondoraño; eta au, norbaitek bultzata bota balu bezela, kana beteko altura zuen oyetik bat-batetan erorita belauniko lurrean gelditzen da. Inguruan zituenak lenbizian izutu ziran, biño laixter ezagutu zuten etzutela izutu bearrik, Margarita oso sendatua zegola. Berrogei libra pisatzen zituen miñez zegonean; eta eun da amar, sendatuta illabete gutxira.

\* \* \*

Karlos Bronék zauri aundi bat zuen ixter aldean; okabilla sartzeko adiñeko zuloa egin zitzayon; ezurra bera're usteldua zeukan, eta anka lau edo bost ontza laburtua gelditu zitzayon. Gizagajoa onela zegola, ixterra moztutzea beste erremediorik etzeukala medikuak esan zioten. Atzeratu zen operazioa, ez dakit zergatik, eta azkenean "etzuela nai" Karlos-ek esan zuen, nayago zuela zegon bezela bizi Jaunak nai zuen artean, Ama Birjiñak sendatuko

zuela iruditzen zitzayola. Asi zen beraren la-  
guntza eskatzen; konfesio jeneral bat egin  
zuen, eta nola gaizki baitzegon, azkeneko Sa-  
kramentuak ere artu zituen.

Orduan promes egin zuen “sendatzen bazen,  
urtero Ama Birjiñaren elizen batera peregrina-  
zioan joango zela, bi urtean egunero Meza en-  
tzungo zuela eta illero konfesatuta komulga-  
tu're bai.” Etorri zen udaberria, eta nola bear-  
tsua baitzen, limosna eskatu zuten berarentzat,  
Lurdes-ara joateko zerbait izan zezan. Sartzen  
dute trenean aberien lekuan, usai gaixtoa za-  
baltzen zuelako, eta bidean ere ospitalera joan  
bear du, ostatuan artu nai ez dutelako. Lur-  
des-en, lenbiziko bi egunetan etzen urean sar-  
tzen atrebitu; sartzen da urrengo bi egunetan,  
biño alperrik; azkenean, igande arratsaldean  
Jaunaren prozesioan sendatuko zela zion.

Prozesioa etortzen da; Jauna iragotzen da  
beraren aurrean, biño etzen Karlos-en fedea eta  
ustea gutxitu; oraindik ere erreduan zegoen,  
Ama Birjiñaren imajin bat eskuetan zuela. Ala-  
ko batean, otz gogor bat sentitzen du gorputz  
guzian eta sendatua gelditzen da. Etzekien gi-  
zagajoak nola Jesusi eta Ama Birjiñari eskerrak  
eman, eta arrazoyakin.



## IRUGARREN IRAKURGAYAREN BOSTGARREN SALLA

### *Beste gañerako milagroen gañean*

Niebre izen duen iri batean zurradore edo larru-maniatzalle batzuek lanean ari ziran. Alfredo Ober (Aubert) zeritzayon bati, edozein gauza erretzen duen bustigarri batekin betea zegon eltze bat erori zitzayon eskuetatik; autsi zen eltzea, eta bustigarri arren zirpiztiñak saltatu zitzaizkan begietara. Erre zitzaizkan Alfredori begiak, eta andik denbora gutxira gizagajoa oso itxutua gelditu zen.

Nola gizon beartsua baitzen eta lanik egin etzezakien, bera ta familia mantentzeko eskean asi zen, gazte denboran ikasi zituen kantaerak kantatuaz. Modu ontan pasa zituen amalau urte; aurren aldean, nola Jaunak bizkarrean

jarri zion gurutzeari, pisu samarra baitzen birtute  
aundia etzuenarentzat, kosta zitzayon galanki  
pazientzian eramatea; biño gero, ekusirik no-  
la jendeak laguntzen zion, ezagutu zuen “Jaun-  
goikoak alde batetik kentzen diguna, bestetik  
ematen digula”, eta kristau oso onaren bizi-  
teraman zuen.

Geyena lagundu ziotenetatik bat, Le Gilló  
apaiza izandu zen; ara nola lenbiziko aldiz el-  
kar ekusi zuten. Bein batean, bederatzigarren  
urtea eskean zeramala, arratseko zortzietan alle-  
gatu zen erri batera. Etzuten ezertxo're gosea  
iltzeko: ¿zer egin garai artan? onlako estuta-  
suetan egin oi zuena; guziak errosarioa erre-  
zaten asi ziran beren gurdiaren barrenan eliz-  
-atietan. Le Gilló elizatik etxera zijoan, eta  
aditurik itxuaren errezua, joan eta limosna on  
bat eman zien; gañera lenbiziko peregrina-  
zioan Lurdes-ara biraldu zuen, Ama Birjiñak  
sendatzen zuen ekusi zezan.

Allegatutako egun berean garbitu zen itxua  
iturri santuan, eta buru guzian oñaze gogor  
bat sentitu omen zuen, biño etzitzayon itxu-  
tasuna kendu. Urrengo egunean, zortzietatik  
bederatzietara, Meza entzun eta komulgatu  
zuen arkaitz santuaren aurrean; komulgatu  
ondorean, eskerrak ematen egondu zen; eta

altxa zenean, arkaitzeko Ama Birjiña ekusten zuela iruditu omen zitzayon; pixka bat itxendon zuen, eta gero bankuak eta inguruan zuen jendea're ekusten zuen; azkenean, arbolak, mendiak eta dena, egundaño ezer izandu ezpalu bezela. Itxu gizagajoak etzekien zer gertatzen zitzayon. ¿Nork esan zer atsegiña artuko zuen amalau urteren buruan berriz ekusten asi zenean?

\* \* \*

Esan dut lenago nola Beljikan Ama Birjiña Lurdeskoari debozio aundia dioten, eta zeruetako Erregiñak nola milagroakin lagundu dien ere bai.

Milagrorik sonatuenak egin diran lekua, Oostacker-ko Ama Birjiñaren ermita da. Lurdes-ko mendiaren antzera, Oostackerren ere buno edo mendi koskor bat egin zuten, Ama Birjiña're, Lurdes-en bezela, bere ar-zuloan jarriaz. Ara emen gertatutako milagruetatik bat.

Pedro Rudder zeritzayon berrogei ta lau urteko gizon bat, gaztelu baten ondoan barrena zijoan egun batean. Zurraritz bat botzen ari ziran an bi gizon; ebaki zutenean arbola, maniatua zegon zelai batera erori zitzayen; eta

kalte aundirik egin etzezan, bi gizon ayek al zuten bezela arbola baztertzen asi ziran.

Orduantxe bada zijoan Pedro leku artan barena; eta gizona ayek estu samar ekusirik, laguntzen asi zen. Biño, alako batean, arbolari adar bat autsi zitzayon, eta alde batera amilduaz, Pedro azpian artu zuen; berne-egurra purrukatu zion.

Mediku batek al zuena bernea osatzeko egin zion, biño alperrik; gaixtotu egin zitzayon bernea, zauri itxusi baten itxura artuaz. Gazteluko nagusiak mediko geyago ekarri zituen, eta ixterra moztu bear zitzayola guziak esan zuten. Biño Pedro gizagajoa etzegon ortarako; lenago're naikoa sufritu zuen, eta etzuen berriz ainbesteko oñazietan jarri nai.

Bernea zer nola zeukan ekusi nai zuen guziaren aurrean, oñari jira bat eskuetan artuta eragiten zion, orpoa aurrean eta beatzak atzean zituela jarriaz; ezur autsiaren tartean eskuko beatzak aixa sartzen zitzaizkan, eta oin guzia zañetatik bakarrik zintzilik zeukan.

Jakiñik denbora artan nola Oostackerren Ama Birjiñak milagro asko egiten zituen, berak ere ara joatea pensatu zuen. Allegatu zen bere emaztearen laguntzarekin ermitara, biño oso

nekatua eta ezertarako gauza etzela. Eserita egondu zen pixka batean, eta gero bere makillen arrimuan iru buelta eman zituen, Ama Birjiña zeukan arkaitz arren jiran. Eseri zen berriz ere alki batean Ama Birjiñaten aurrean, orlako denbora ta naigabietan fedea eta sufrimentuak burura dakarten guzia Mariari esanaz. Alako batean altxatzen da Pedro bat-batean, laguntzarik gabe pixka bat aurreratuta belaunikatzen da; etzekien berak ere zer gertatzen zitzayon. Ezurrak osaturik, aragi berriz bat-batetan bernea ibeteta, ezer izandu ezpalu bezela sendatua zegon; bakar bakarrik arrasto bat gelditu zitzayon siñaletzat bezela.

Joan zen bere errira, eta Ama Birjiñari eskerrak emateko puntzio bat egin zuten; gainera bederatziurren bat, egunero meza nagusiarekin, jende asko biltzen zelarik.

Askoren fedea milagro onekin pizkortu zen; ala erakusten zuten beren obra onakin. Ezin liteke esan zenbat persona joaten ziran Pedro ekustera; lau Obispo jaun eta irureun apaizek ekusi zuten, eta ogei ta amar medikuk ere bai.

Zortzi urte eta bi illabete zeramazkien Pedrok, Ama Birjiñak sendatu zuenean; orain-

dik beste ogei ta iru urtean ere bizitu zen, eta etzuen bere denbora guzian ezer ere sentitu. Asteero joaten zen Oostackerara, Ama Birjiña bisitatzera, eta beti kristau ona eta guzian laguntzallea izandu zen.

\* \* \*

Joakina Deantek belaunetik txurmiorañoکو zauri ikaragarri bat zuen, eta berne guzia ezurreraño usteldua zeraman; amabi urte zeramazien miñez, eta egundaño sendatzeko usterik gabe.

Aditurik bein batean Lurdes-ko mirariak, Ama Birjiña Lurdes-koak sendatuko zuelako ustez beterik, Lurdes-ara joatea pensatu zuen. Eta pensa zenbatekoa izango zen beraren konfiantza, bada berealaxe zapata berri bat eragin zuen, Lurdes-en oña sendatzen zitzayonean jazteko; eta miñik etzuen oñean neurria artuta, zapata berria egin zioten. ¡A zeñen aundia den kristau onen fedea, eta zeñen gauza miragarriak irixten dituen Jaunagandik fede onek!

Joaten da Joakina Lurdes-ara; eskerrak ematen dizka zeruetako Erregiñari, ongi allegatu zelako; Jaungoikoaren gloriarako eta pekata-

rien onerako bazen, osasuna eskatzen dio; garbitzen du iturrian zauria, biño alperrik.

Urrengo gabeen lorik ezin egin zuen; jaitkitzen da bada goiz-aldeko ordu bi ta erdietan, eta bakulo edo muletakin, zapata berria esku batean duela, iturri bedeinkatura dijoa. Neke prankokin allegatu zen iturrira, biño etzion iñork urean sartzen lagundu nai, okerren bat gertatu etzeiyen. Sartzen da bada bera bakarrik, al duen bezela; badago urean ordu erdi batean; dena alperrik; sartu bezela atera zen; ala egin oi du askotan gure Jaungoikoak gure fedea probatzeko.

Sartzen da berriz ere bederatziak aldean; egoten da iya beste ordu erdi batean; ateratzen da; begiratzen dio pantorrillari, eta iñoiz ere ezer izan ezpalu bezela arkitzen du!... ¡Pensaz enbategoa izango zen beraren atsegiña ta poza! Jazten du zapata berria, eta etxera; birajea lagundu zion apaiz jaun batek, erriko elizan jende guziaren aurrean, milagroa kontatu zuen.

\* \* \*

Beste milagro geyago're jarriko nituke; biño alperrikako lana iruditzen zait, eta uztera noa.

Bakar bakarrik esango dut, peregrinazioetan geyenak egin oi dirala; milla zortzireun da larogei ta amargarren urteko *nazionalean*, gutxienez berrogei ta bost sendatu ziran; urrengo urtekoan, ogei ta amasei; urrengoan, berrogei ta zortzi; andik lau urtekoan, irurogei ta lau; andik bi urtera, larogei ta amabost; eta beti orrela, urtean biño urtean geyago.

Alaz guziaz ere, peregrinazio bat biño geyago ekusi oi dira milagro bat ere izandu ez dutenak; batean, irureun da berrogei ta amar eri edo gaixo eraman zituzten eta etzitzayen bat ere sendatu. Arras-ko erritik bein egin zutenean berriz, egundiño denak sendatu ziran, Jaun Sakramentatua ayen aurrean irago zenean.



## BUKAERA

Uste dut, euskaldunak, eskribitu dudanakin Lurdes-ko gauzen berri naikoa badakizutela, eta aski dela au Ama Birjiña Lurdeskoari debozio aundi bat izateko.

Maria txit santari zerbait onra egiteagatik asi nitzan, eta orra bukaerara etorri.

Orain zuek egin bear duzutena da, gogoan artu emen irakurri dituzuten gauzak, Ama Birjiñarengana zeren estutasun guzietan joateko; noizean bein irakurri berriz ere liburutxo au; auzokoai're libru onen aditzera eman, ayek ere nai badute erosi dezaten edo beñepeñ zerbait jakin gabe gelditu ez ditezen. Eta liburutxo au eta beste edozein erosteko modurik onena izango litzake, nor bere erriko apaiza jaunen ba-

tongana joatea eta berari esatea, ark saltzen diran lekura eskatu ditzan.

Orain bada, gero arte; eta erregutu nigatik Ama Birjiñari, nik ere, naiz Euskalerritik urrutiti bizi, euskaldunengatik erregutu oi diodan bezela, eta zeruan elkar ezagutu dezagula. Amen.

*A. M. D. G.*

## ORAINDAÑOKO LIBURUAK

1.—*R. Artola*

SAGARDOAREN GRAZIYA ta beste bertso  
asko. (Aitua)

2.—*M. Soroa*

GABON, ¡AU OSTATUBA!, ANTON KAIKU

3.—*P. Apalategui, S. J.*

EUSKAL MUTILLAK ARMETAN, I.

4.—*Pepe Artola*

USTEZ LAGUNA DETAN ta beste bertso  
asko.

5.—*P. M. Urruzuno*

EUSKALERRITIK ZERURA ta beste ipui ba-  
tzuk.

- 6.—*Toribio Alzaga Anabitarte*  
RAMUNTXO
- 7.—*Ramos Azkarate*  
GALTZAUNDI ta beste bertso asko.
- 8.—*Antero Apaolaza*  
PATXIKO TXERREN. (Nobela).
- 9.—*Bitoriano Iraola Aristiguieta*  
OROITZAK ta beste ipui asko.
- 10.—*Bertsolariak*  
ERREGE EGUNEKO BERTSO-SAYOA (1962)
- 11.—*Piarres Larzabal*  
BORDAXURI
- 12.—*Bilintx*  
BERTSO TA LAN GUZIAK
- 13.—*Mariano Izeta*  
DIRUA GALGARRI
- 14.—*Piarres Larzabal*  
IRU ZIREN

- 15.—*Bertsolariak*  
EZKONTZA GALDUTAKO BERTSOAK -I-
- 16.—*Alfonso M.<sup>a</sup> Zabala*  
GABON GAU BAT eta beste ipui asko.
- 17.—*Antonio M. Labayen*  
MALENTXO, ALARGUN!
- 18-19.—*Antonio Zavala, S. I.*  
TXIRRITA (Bizitza ta bat-bateko bertsoak.
- 20.—*Franzisko Goñi, S. I.*  
LURDES-KO GERTAERAK



1027905

JB-895